



Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.  
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

0cb1270221a3df8529c47e3f4c5d029698754b60348252737edc7bd169308185

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

## **TOLOSAKO UDALBATZAK 2022KO EKAINAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA**

**2022.06.30**

Tolosako Udaletxean, 2022ko ekainaren hogeita hamarrean, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburua Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

### **Alkate-lehendakaria:**

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

### **Parte hartu duten zinegotziak:**

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)  
Xarles Iturbe Pasaban (EAJ-PNV).  
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)  
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)  
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)  
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)  
Kristina Pelaez Errazkin (EH BILDU)  
Ander Figuerido Zubiria (EH BILDU)  
Aitana Amondarain Esquisabel (EH BILDU)  
Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)  
Garbiñe Marzol Ormazabal (EH BILDU)  
Xabier Martinez Quinquilla (EH BILDU)

### **Parte ez duten zinegotziak:**

Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)  
Estitxu Kortejarena Ugarte (EH BILDU)  
Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria (PSE-EE)

### **Idazkari Akzidentala:**

Karmele Contreras Goikoetxea



### Gai-zerrenda

1. Akta hau onartzea: 2022ko maiatzaren 26ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.
2. Behin behingoz onartzea Tolosako Udaleko lanpostuen katalogoa eta balorazioa, sailen organigrama berria eta lanpostuen zerrendaren aldaketa.
3. Onartzea Tolosako udal eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzu-kontratua aldatzea, covid-19 gaitzak sortutako egoeratik eta Osasun Ministerioak emandako garbiketa protokoloen ondorioz, kontratuan izandako gailuzko fakturak ordaintzeko.
4. Onartzea Tolosako etxez etxeko laguntza zerbitzu-kontratuaren espedientea presakotzat jotzea, eta lizitazioari hasiera ematea.
5. Onartzea Tolosako udalerrian arlo sozioedukatiiboan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratuaren adjudikazioa.
6. Onartzea Tolosaldea Garatzenen erabaki-proposamena, Tolosako Udalaren baliabide propio izendatzeko, eskualdeko beste udalekin batera.
7. Hasieraz onartzea 8/2022 Kreditu aldaketarako espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa.
8. Onartzea ltxitako ekitaldiko fakturak.
9. Hasieraz onartzea Tolosako udalerriko jenderik gabeko etxebizitzak eraberritzeko dirulaguntzen bidez alokairu soziala bultzatzea arautuko duen ordenantza .
10. Hasieraz onartzea Tolosako landa auzoetako baserri bideetan elurra kentzeko zerbitzua auzolanaren bitartez ematea arautzen duen ordenantzaren aldaketa.
11. Hasieraz onartzea bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzeko arautzen duen udal ordenantza.
12. Hasieraz onartzea urbanizazio, eraikuntza, eta ingurumena, paisaia eta natura babesteko udal ordenantzaren IV. Tituluaren aldaketa (Ostalaritza eta jolas jarduerak baimentzea eta ezartzea arautzeko baldintzak).
13. 7/2022 kreditu aldaketarako espedientearen berri ematea, kreditu gehigarrien modalitatekoa.
14. Behin betiko onartu izanaren berri ematea: Oriaburuko areto nagusia erabiltzeko Erregelamendua.
15. Errefuxiatuen egoerari buruzko mozioa.
16. Mozioa: Ekainaren 28a. Gay, Lesbiana, Transexual, Bisexual, Intersexual eta Queer-en eskubideen Nazioarteko Eguna.
17. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

### **1. AKTA HAU ONARTZEA: 2022KO MAIATZAREN 26KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.**

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.



## **2. BEHIN BEHINGOZ ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO LANPOSTUEN KATALOGOA ETA BALORAZIOA, SAILEN ORGANIGRAMA BERRIA ETA LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA.**

Lehenik eta behin, EAJ-PNV, EHBildu eta PSE alderdiek, "Tolosako udaleko lanpostuen katalogoa eta balorazioa, sailen organigrama berria eta lanpostuen zerrendaren aldaketa"ren gaineko ondoko emendakina aurkeztu da:

*"Honela, aipatutako espedientearen Lehenengo ataleko 3. eta 4. azpiataletan hauxe dioen lekuan:*

*"3.- Udal lanpostu zerrendan sortzeko proposatzen diren lanpostu berriak sortzea doikuntzarik gabe, eta legeak ahalbideratzen duen heinean, dagokion doikuntza onartzea lanpostu berri hauek hornitu ahal izateko:*

*"4. Tolosako udaleko Lanpostuen Zerrenda, Plantilla Organikoa eta aurrekontu Plantilla*

*Hauxe esan beharko luke:*

*"3.- Ondoren proposatzen diren lanpostu berri hauek sortuko dira, legeak ahalbideratzen duen heinean eta lanpostu berri hauek hornitu ahal izateko dagokion doikuntza onartzen den heinean:*

*"4. Tolosako udaleko Lanpostuen Zerrenda (aurreko 3. azpiatalean adierazitako lanpostuak izan ezik, baldintzatuta egongo baitira azpiatal horretan adierazitakoaren arabera), Plantilla Organikoa eta aurrekontu-Plantilla.*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

Beraz, Udalbatzak aho batez onartu du emendakina.

Bestalde, II tituluko 8. b) atalean eta bigarren puntuaren 9. zenbakian akats bat dagoela jakinarazi da, udal Kontuhartzaileak egindako txostenarekin bat etorritz.



Hau da, Kontuhartzailearen txostenaren edukia:

«2.3. Balorazioak eragindako gastua.

*Proposamenak 666.362,00 euroko gastua aurreikusten du guztira.*

*Zenbateko hau baloraziotik eratorritako langileen ordainsarien igoerari dagokio, 2020ko uztailaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitarteko epean, balorazioaren atzeraeragina aplikatzea planteatzen baita.*

*Udateko langileen kasun atzeraeragina 2019 maiatzaren 7tik aurrerako ondorioekin aplikatu da, baina proposamenean ez da kontuan hartu data horretatik 2020ko ekainaren 30era arte izango duen eragina. Zenbateko hori 25.000,00 eurokoa izan daitekeela uste da, eta lehen aipatutako 666.362,00 euroei gehitu beharko litzaieke. Honen arabaera, ordainsarien igoera, guztira 691.362,00 euro dira.*

*Halaber, kontuan hartu beharko da enpresaren kargurako Gizarte Segurantzari dagokion zenbatekoa. Hau, 228.500,00 eurokoa izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko ordainsariei orokorrean %33a aplikatu zaie, nahiz ta langile batzuk kotizazio-oinarriaren gehieneko mugara iristen diren.*

*Beraz, guztizko gastua honako hau izango da:*

<i>Ordainsariak</i>	<i>691.362,00</i>
<i>Gizarte Segurantza</i>	<i>228.500,00</i>
<i>Guztira</i>	<i>919.862,00 »</i>

**Beraz, bi atal horiek zuzenduta gelditzen dira Kontuhartzailearen txostenaren arabera.**

**Beraz, Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko ekainaren 21eko irizpena onartutako emendakinarekin eta zuzenketarekin bozketara jarri da:**

## **AURKIBIDEA**

### **AURREKARIAK ETA ZIOEN AZALPENEA**

I. Aurrekariak

II. Prozesuaren garapena eta edukia

- 1.- Lanpostuen inbentarioa
- 2.- Lanpostuen deskribapena



- 3.- Organigrama eta lanpostu zerrenda
- 4.- Lanpostuen balorazioa
- 5.- Negoziazioa ordezkari sindikalekin
- 6.- Zenbait lanposturen baldintzak finkatzea
- 7.- Osagarri pertsonal iragankorra
- 8.- Azterketa ekonomikoa

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

- I. Lanpostu zerrendaren eta plantillaren araubideak.
- II. Lanpostuei dagozkien ordainsariak.
- III. Lanpostuen balorazioaren aplikazioa.
- IV. Negoziazioa ordezkari sindikalekin.
- V. Onartzeko prozedura eta organo eskuduna

## I. AURREKARIAK

Tolosako Udalak, 2003. urtean, lanpostuen balorazioari dagozkion lanak kontratatu zizkion LKS enpresari. Prozesu horren emaitza 2005eko apirilaren 26an egindako udalbatzan hartutako erabakia izan zen; bertan, lanpostuen katalogoa, udal sailen organigrama eta lanpostuen balorazioak eguneratu eta onartu ziren.

Urte hauetan guztietan, eta 2019. urtera arte, hainbat lanpostu baloratu dira, balorazioaren unean indarrean zeuden irizpideen arabera. Nolanahi ere, aipatu beharra dago 2005. urteaz geroztik ez dela lanpostuen azterketa orokorrik egin, ezta balorazio orokorrik ere, eta ez zaiola modu orokorrean ekin Udalean indarrean dagoen antolaketa-ereduaren azterketari.

Azken urte hauetan izan diren aldaketa sakonak direla medio, 2019. urtean Udalaren berrazterketa integral bat egitea erabaki zen; bertan, sailen organigramak, lanpostu bakoitzaren funtzio eta zereginen deskribapena, eta horren ondorioz lanpostuen balorazioa egitea erabaki zen, esan bezala, lanpostu eta sailen antolaketak zein funtzionamenduak oro har aldaketa sakon bat eskatzen zutelako.

Bereziki, honako faktore hauek azpimarratu behar dira:

- 2005etik hona Udalak bere gain hartu dituen eskumen berriak, 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeak arautzen dituenak, kontsolidatu eta garatu dituenak.



Eskumen horiek, nagusiki, honako esparru hauetan garatu dira: Gizarte Zerbitzuetan, herritarren arreta integrarean, garapen ekonomikoan, Gobernantzan eta herritarren partaidetzan eta abarrean.

- 39/2015 Legeak eta 40/2015 Legeak, halaber, administrazio elektronikoa arautzen duten arauak sortutako araubidearen ondorioz, Administrazio publikoek orokorrean eta toki administrazioak zehazki izan dituzten eraldaketa nabarmenak; batetik, Udalaren antolaketa eta lan egiteko moduak aldatu dira; izan ere, administrazio elektronikoa ezarpenaren ondorioz, Udalaren lan izapide guztiak ordenatu, estandarizatu, sistematizatu, eguneratu, tresna berriak onartu eta martxan jarri behar izan dira (adibide gisa, ZERBIKAT, izapideak egiteko aplikazioa edo ESKUA, udal espedienteak elektronikoki izapidetzeko aplikazioa).
- 2019. urtean hasitako legealdian, udal antolakuntzako sistemaren aldaketak eragin handia izan zuen Saitetan: Udal zerbitzuak hiru eremu edo arlo handien inguruan berrantolatu ziren (Antolakuntza, Herritarrak eta Lurraldeak), eta horren ondorioz, zenbait lanposturen funtzioak nabarmen aldatu ziren (UDATE zerbitzu berria hornitzen duten lanpostuak, Bulego teknikoari atxikitako lanpostu batzuk, etab.)
- Sektore publikoko kontratuen, giza baliabideen kudeaketaren, eta gastu publikoaren kontrolaren arloetako erregulazio berriek baliabide pertsonal eta material gehiago eta kualifikatuagoa eskatzen dute.

Hori dena ikusirik, Udalak kontratazio jardunbide bat jarri zuen abian lanpostuen katalogoa berraztertu, organigrama berria proposatu eta lanpostuen balorazioa eguneratzeko xedearekin. Giza Baliabideetako teknikariak, 2019ko apirilaren 24an egindako txostenean, egin beharreko zeregin nagusiak zehaztu zituen: *Udala bera Udalean ari diren giza baliabideak hobe antolatzeko tresna batez hornitzeko helburuarekin, Udalaren egungo antolamendu egoera dokumentatzeko eta aztertze lanak egitea, udal lanpostuen eginkizunen eta funtzioen deskribapena egitea, organigrama bat prestatzea, egungo lanpostuen balorazioa egitea, lanpostuak Kudeatzeko eta Baloratzeko Gida bat sortzea eta langile talde organikoaren eta Lanpostuen Zerrenda berraztertzea ditu xede gauzatuko den kontratuak. Horrez gain, kudeaketa eredu, egitura eta antolakuntza hobetzeko proposamen bat egingo da.*

Lizitaziorako jardunbidea burutu ondoren, Tolosako alkateak eta Rodriguez Viñals, SL enpresako ordezkariak aipatutako xedeak dituen kontratua izenpetu zuten 2019ko irailaren 5ean. Kontratuaren iraupena, hasiera batean, 10 hilabetekoa zen.

Kontratutako lan horien helburu nagusia zen lanpostu zerrenda berri eta eguneratu bat edukitzea, lanpostu bakoitzaren funtzioak eta zereginak argitzea, organigrama berria edukitzea, eta horren baitan, lanpostuen ordainsariak benetan egiten diren zeregin eta funtzioetara egokitzea.



## II. PROZESUAREN GARAPENA ETA EDUKIA

### A) Prozesuaren garapena:

Tolosako Udalak, 2019ko irailaren amaieran, hasiera eman zion Rodriguez Viñals enpresaren bitartez Udaleko lanpostuak eta funtzioak berraztertu, egokitu, lanpostuen deskribapenak egin, baloraziorako eskuliburua idatzi, lanpostuak baloratu eta lanpostuen zerrenda egokitu eta organigrama osatzeko lanei.

2019ko azken hiruhilekoan, langileek galdetegiak bete eta galdetegi horien kontrastea egiteko elkarrizketak egin ziren.

Fase hori amaitu ostean, 2020ko lehen hiru hilabeteetan, lanpostuen deskribapenen lehen zirriborroa zerbitzaburuei igorri zitzairen, alegazioak egiteko aukera emanaz. Baita ere, arlo bakoitzeko zinegotziei funtzioak banatu zitzaizkien, prozesuaren gaineko jarraipena egin zezaten.

Udaleko lanpostuen funtzioak eta zereginak aztertzeko lanak eten egin ziren COVIDak sortutako pandemiaren ondorioz. Udal jarduera arrunt ia osoa ia hiru hilabetez gelditu zen, eta hor, aintzat hartu behar da espedienteen izapidetzeak ere gelditu egin zirela, 2020ko oporraldia ere izan zela eta Udalean jarduera normalizatuari berrekiteko zailtasunak sortu zirela. Horrek guztiak eragin zuen katalogoa egitearekin eta organigrama berria definitzearekin lotutako lanak 2020ko azken hiruhilekora arte geldituta egotea.

2021eko lehen hiruhilekoan, lanpostuen deskribapenei zegozkion lanak amaitu, eta apirilean langile bakoitzari jakinarazi zitzaion zegozkion deskribapena, enpresak bidalitako alegazio erantzunekin, eta bakoitzaren lanpostuaren balorazioarekin. Ondoren, alegazioak egiteko aukera eman zitzairen.

2022ko martxoaren erdialdean, balorazioko lan teknikoak amaitutzat eman ziren eta udal gobernu eta komitearen arteko negoziazio bilerak hasi ziren. 2022ko maiatzaren 31n amaitutzat eman dira.

### B) Espedientearen edukia:

Rodriguez Viñals enpresak egindako lan hauen guztien emaitza honako dokumentu hauetan dago deskribatuta:

#### 1.- Lanpostuen inbentarioa

Atal honek honako informazio hau jasotzen du: lanpostu bakoitzaren kodea, izena, Unitate Organikoa (saila), eta plaza-kopurua.



## 2.- Lanpostuen deskribapena

Atal honetan, lanpostu bakoitzak dituen funtzio (orokorrak) eta zereginak (berariazkoak eta orokorrak) zehazten dira, erantzukizun orokorrak eta lanpostu bakoitzaren zeregin esanguratsuenak deskribatuz. Atal honetan azpimarratu behar da, oro har, funtzioak zehaztu direla eta funtzio horien barnean, zeregin nagusiak zehazten direla. Horregatik, funtzio eta zeregin nabarmenenak deskribatu dira, eta beste batzuk funtzio nagusiaren barnean sartuak geratu dira.

Lanpostu bakoitzaren deskribapena lortzeko, honako pausoak eman dira:

- Langileei galdetegi bat banatu zitzaion, bakoitzak bere lanpostuan betetzen zituen funtzioak, zereginen maiztasuna eta erantzukizunak zehazteko.

- Ondoren, galdetegia kontrastatu zen, elkarrizketen bidez, lanpostu bakoitzeko langile edo langile multzo/kolektibo batekin, bertako informazioa egiaztatu eta baieztatzeko.

- Hurrengo pausoa, lanpostuen deskribapenaren lehen zirriborroa sail bakoitzeko zerbitzuei eta arloko zinegotziei igorri zitzaion, aztertu eta, hala bazegokion, aldaketak proposa zitzaion.

- 2020ko azaroaren 2tik aurrera, langileei betetzen ari ziren lanpostuen deskribapena jakinarazi zitzaion, eta hamar lan eguneko epea eman zitzaion alegazioak egiteko.

Ondoren, kontraturiko enpresak, 2021eko martxoan eta apirilean, honako dokumentazio hau igorri zuen:

- Lanpostuen deskribapenei egindako alegazioen erantzunak.
- Organigramaren proposamena.

Prozesu honekin guztiarekin, lanpostuen katalogoa eratutzat eman zen 2021eko apirilean, eta horrekin lehen fasea amaitutzat eman zen.

## 3.- Organigrama eta lanpostu zerrenda

Lanpostuen deskribapenak eta sailkapenak egitearekin batera, Udaleko antolaketa sail/egiturak zehaztu ziren, eta sail bakoitzaren organigrama proposatu da, unitate bakoitzak dituen mendekotasun hierarkiko eta funtzionalak zehaztuta, kasuan kasu. Orotara, udal sailak 12 sailetan egituratuak geratu dira, hain zuzen ere:





- Komunitatea eta Gobernantza
- Idazkaritza
- Informatika eta teknologia berriak
- Kontu hartzailetza eta diruzaintza
- Hirigintza, obrak eta zerbitzuak, ingurumena, mugikortasuna eta trantsizio energetikoa
- Udaltzaingoa
- Gizarte zerbitzuak eta osasuna
- Kultura, jaiak eta gazteria
- Berdintasuna
- Garapen ekonomikoa, enplegua, merkataritza, turismoa eta feriak
- Euskara eta Hezkuntza
- Kirolak

Ildo honetatik, Rodriguez Viñals enpresak aurkeztu zion Udal honi Lanpostuen Zerrenda “estrategikoaren” proposamena. Izan ere, proposamen horren bitartez kontratistak zehaztu zituen Udal honek eduki beharreko organigrama/antolaketa eta lanpostuak.

Azterketa honen ondorioz, udalak lanpostu zerrenda “operatibo” bati oniritzia emateko proposamena egin du eta proposamen horretan, lanpostu zerrendan, egun zeuden lanpostuez gain, etorkizunean legeak ahalbideratzen duen heinean eta Udalak dituen lehentasunak kontuan hartuz, zenbait lanpostu berri sortzeko proposamena egin du.

Lanpostu horiek kontraturiko kontsultoreak egindako azterketaren ondorioz sortu beharreko lanpostuak dira eta alde horretatik, indartu beharreko hainbat sail eta lanpostu daude, hain zuzen ere honakoak:

- + Udateko koordinatzailea
- + Giza Baliabideetako erdi mailako teknikaria
- + Informatika teknikaria
- + Informatikari teknikari laguntzailea
- + Ingeniari tekniko elektrikoa
- + Bi gizarte langile
- + Erosketa eta kontratazioko kudeaketa teknikaria

#### 4.- Lanpostuen balorazioa

Aurreko ataletan egindako lanen emaitza gisa, kontraturiko enpresak aurkeztu zuen bere balorazio-proposamena. Kontratistak jarraitutako metodologiaren arabera, lanpostu bakoitza hamaika faktoreren arabera baloratu da: lanpostua betetzeko beharrezko diren titulazio akademikoak, bestelako espezializazio-ikasketak,



beharrezko ikaskuntza-epea, aginte-erantzukizuna, antolaketaren emaitzetan izandako eraginagatiko erantzukizuna, neke intelektuala, neke fisikoa, ingurumen- eta psikologia-nekagarritasuna, arriskugarritasuna, lanaldiaren ezaugarriak eta dedikazio-erregimena.

Lanpostu bakoitzaren balorazioaren emaitzak 2021eko apirilaren 12tik aurrera jakinarazi zitzaizkion langile bakoitzari lanpostuaren deskribapenarekin batera, aztertu eta, hala bazegokion, alegazioak aurkez zitzen. Era berean, dokumentazio guztia Udaleko sarean jarri zen.

Ondoren, alegazioa egin zuten langileei aholkulariaren erantzuna jakinarazi zitzaien eta hala, 2022ko martxoaren 8an, lanpostuen balorazioaren lan teknikoei amaiera eman zitzaien. Aldi berean, balorazioan puntu aldaketa izan zutenei banan-bana jakinarazi zitzaien ze faktore eta zenbat puntutan izan zen aldaketa hori.

Baita ere, lanpostuaren balorazioko dokumentu teknikoa udaleko sarean ikusgai jarri zen bukaerako emaitzarekin, langile orok ikus zezan.

Behin balorazio lanak amaitu ondoren, Rodriguez Viñals enpresak lan teknikoen dokumentua aurkeztu du, honako egitura honekin:

- Gaur egungo antolaketa eta organigrama zehaztuta
- Lanpostuen inbentarioa
- Lanpostuen deskribapenak
- Lanpostuen balorazioak
- Lanpostuen katalogazioa
- Lanpostuen zerrenda
- Lanpostuen txosten tekniko eta juridikoa
- Lanpostuen puntuazioa faktoreka
- Eranskinak zenbait lanpostutan

#### 5.- Negoziazioa ordezkari sindikalekin

Udalak, 2022ko martxoaren 22an, balorazioari dagozkion negoziazio bilerak hasi zituen ordezkari sindikalekin. Bilerak data hauetan egin dira: martxoaren 22an, apirilaren 5ean, apirilaren 19an, maiatzaren 3an, maiatzaren 17an eta maiatzaren 31n. Azken bilera bat ere egin zen, ekainaren 14an.

Negoziazioaren ondorioz lortu diren emaitzak hauek izan dira:

#### 5.1.- Proposamen ekonomikoa



Negoiazio prozesuan zehar, udal gobernua eta komiteak balorazioaren koadro ekonomikoari buruz zenbait bilera izan ondoren, berriazko osagarriaren balio/puntua 18,84tan finkatzea adostu da.

Puntu bakoitzaren balioa honela kalkulatu da: langileek 2022an jasotako berriazko osagarriari dagozkien zenbatekoen batura balorazio-prozesuan lortutako puntuen baturarekin zatitu da. Modu honetan, €/puntua ezartzerakoan, zuhurtziaz jokatu da, justifikaziorik gabeko aldaketak saihestuz.

## 5.2.- Atzeraeraginkortasuna eta indarrean jartzea

Hasera batean udal gobernua 2021eko urtarrilaren 1eko atzeraeragin ondorioak emateko eskaintza egin zuen, baina ondoren, negoziazioaren jardunbidean zehar, langileen ordezkariak egindako proposamena onartu zen, alegia, 2020ko uztailaren 1etik aurrera aplikatzearena.

Horren arrazoia honako da: kontuan hartzen badugu prozesu honi hasiera eman zion kontratua 2019ko irailean izenpetu zela, eta aurreikusitako iraupena 10 hilabetekoa zela, kontratua 2020ko uztailan amaitu behar zen.

Dena den, arestian aipatu den moduan, Udaleko lanpostuen funtzioak eta zereginak aztertze lanak eten egin ziren COVIDak sortutako pandemiaren ondorioz. Udal jarduera arrunt ia osoa ia hiru hilabetez gelditu zen, eta hor, aintzat hartu behar da espedienteen izapidetzeak ere gelditu egin zirela, 2020ko oporraldia ere izan zela eta Udalean jarduera normalizatuari berrekiteko zailtasunak sortu zirela. Horrek guztiak eragin zuen katalogoa egitearekin eta organigrama berria definitzearekin lotutako lanak 2020ko azken hiruhilekora arte geldituta egotea

Horrez gain, Udalak beste zenbait proiektu estrategiko martxan jarri ditu legealdi honetan; hala nola formazio planaren diseinua, bi arrazionalizazio programa (bata aurrez jubilatzegatiko primen ordainketa bideratzeko eta bestea plantilla organikoa eta lanpostu zerrenda onartzeko), udal langileak telelanean aritzeko araudia, zenbait lan eskaintza publikoren onarpena eta aldi baterakotasuna murrizteko neurriei buruzko azterketa eta eskaintza publikoaren argitalpena.

Horregatik guztiagatik, atzeraeraginkortasuna emateko arrazoiak daudela ikusi da, batik bat kontratuaren iraupena ikusirik, eta tartean izan diren gorabehera eta ezustekoak kontuan hartuta.

## 5.3.- Lanpostuen balorazio sistema eguneratuta edukitzeko prozedura.



Rodriguez Viñalsen eskuliburuak VI. tituluari, XII. eta XIII. Kapituluari, balorazio sistema eguneratuta edukitzeko proposamen bat egiten du. Laburbilduz, honako ezaugarri hauek ditu:

- Lanpostuen balorazioa kudeatzeko eskuliburu bat du, honako edukia izango duena:
  - + Lanpostuen balorazioaren dokumentazioa zer sailek gordeko duen finkatzea
  - + Balorazioa berraztertzeke zer tresna erabiliko den zehaztea-
  - + Lanpostu bat berraztertzea eskatzeko zer prozedura jarraituko beharko den-
  - + Balorazioaren berrikuspenera egin behar duten organoak, horien azterketa eta dagozkien eginkizunak eta funtzionamendua.
  - + Lanpostuen berrikuspenera egiteko dokumentu estandarizatuak onartzea-
- Lanpostuen kudeaketarako eskuliburu honek honako egiteko hauek izango ditu:
  - + Lanpostuen balorazio eta sailkatze mekanismoa ezartzea
  - + Lanpostuak berrikusteko prozedura (ohiko eta ezohikoa)
  - + Izapidetze prozedurak eta pausoak zehaztea
  - + Balorazio batzorde bat eratzea
  - + Prozeduran erabiliko diren inprimaki eta dokumentu ereduak onartzea

Hortaz, Rodriguez Viñals enpresak proposatutako lanpostuen balorazio sistema eguneratuta edukitzeko, bertan adierazitako "Lanpostuen kudeaketa eskuliburua" tresna gisa erabiltzea proposatzen da.

Udal gobernuak eta langileen ordezkariak adostu dute balorazioak berrikusteko organoaren osatura: tokiko gobernuaren hiru ordezkari, langileen hiru ordezkari, aholkulari bat (Udaleko idazkaria) eta idazkari bat (Giza Baliabideetako teknikaria).

#### 5.4.- Udal lanpostu zerrendan sortzea proposatzen diren lanpostuak

Udalak proposatzen duen organigrama eta lanpostuen antolaketa berriaren ondorioz, lanpostu batzuk sortzea aurreikusten da. Lanpostu horiek Estatuko Aurrekontu Legeak ezarritako xedapenak errespetatu beharko dituzte, hortaz legeak ahalbideratzen duen heinean, lanpostu berri hauek sortzea proposatzen da:

- + Udateko koordinatzailea
- + Giza Baliabideetako erdi mailako teknikaria
- + Informatika teknikaria
- + Informatikari teknikari laguntzailea
- + Ingeniari tekniko elektrikoa
- + Bi gizarte langile
- + Erosketa eta kontratazioko kudeaketa teknikaria



### 5.5.- Udaltzaingoaren saileko langileen lanaldia eta dedikazioa

Udal honetako Giza Baliabideetako Azpisailaren dokumentazioa aztertu ondoren ikusi da Udaltzaingoak lan txanda eta egutegi antolaketa sistema berdina izan du gutxienez 1994tik, txanda bakoitzari esleitutako agenteen kopurua izan ezik, zerbitzuaren beharren arabera aldatu baita. Hala, egutegi antolaketako sistema honek urteko 365 egunak eta eguneko 24 orduak hartzen ditu, eta honela dago antolatuta:

- Gaueko txanda, 7 egunekoa, astelehenetik ostiralera 22:00etatik 07:00etara, eta larunbat eta igandeetan, 19:00etatik 07:00etara.
- Atsedena 7 egunekoa.
- Goizeko txanda 5 egunekoa, 07:00etatik 14:00etara.
- Arratsaldeko txanda 7 egunekoa, astelehenetik ostiralera 14:00etatik 22:00etara, eta larunbat eta igandeetan, 07:00etatik 19:00etara.
- Atsedena 7 egunekoa.

Agente kopuruari dagokionez, egutegia bost taldetan banatzen da: talde bakoitza Legen Agente batek eta hiru udaltzainek osatzen dute eta guztira 20 udaltzain lan txanda hauetan sartuta daude.

Horiez gain, bi udaltzain goizeko txandan funtzio administratiboak egitera atxikita daude eta beste bi udaltzainek goiz eta arratsaldez irratiko lanak egiten dituzte. Gainontzeko agenteek goiz eta arratsaldeko txandan lan egiten dute, astelehenetik ostiralera eta larunbatetan hilean behin.

Horren baitan, 3 lan txandan zeuden agente lehen eta agenteek 1994an eskatu zuten gau, jai-egun eta jai-gau egunengatik etorritako plusak, txandak egiten zituzten agente guztien artean banatzeko, eta garai hartako Gobernu Batzordeak, 1994ko urtarrilaren 25ean, eskaera onartu zuen.

Ondorengo urteetan onartu diren egutegietan ere akordio hori indarrean egon da eta 2005ean, Udaltzainak apirilaren 26an egindako bilkuran, modu berbereraren berretsi zuen akordioa, garai hartan onartu zen lanpostuen balorazioan eta horrela mantendu izan da gaur egun arte.

Dena den, gaiaren azterketa egin ondoren, plusei buruzko akordio hori ez da egun indarrean dagoen legedira egokitzen, hain zuzen ere, hiru xedapen hauek ezarritakoa kontuan hartuta: uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak; uztailaren 30eko 207/1990 Dekretuak, euskal administrazio publikoetako funtzionarioen ordainsariei buruzkoak; eta apirilaren 25eko 861/1986 Errege dekretuak, toki administrazioetako funtzionarioen ordainsarien erregimenei buruzkoak.



Xedapen hauetatik ondorioztatu daitezkeen bezala, "plusen sistema" jadanik ezin da mantendu eta gauzez eta jai-egunez ematen diren zerbitzuek, ohizkotasun eta finkotasun bat duten heinean, berariazko osagarrian islatuta egon behar dute, eta behin betikoz Euskal Funtzio publikoko legediak ezarritako ordainsari kontzeptuetara egokitzea ekarriko du, eta, besteak beste, berariazko osagarrian baloratuta geratuko dira bai lan txandatan sartutako ordutegiak, baita zerbitzuaren beharra dela eta baliabideak behar diren momentuetan eta egun zehatzetan. Hortaz, indarrean dagoen legedira egokitzeak orain arte erabiltzen zen ordainsari sistema desagertzea ekarriko du; alegia, gau edo jai-egun eta ordu bakoitzeko ordainketa kopuru zehatz bat finkatzearena ezingo da erabili.

Berariazko osagarri hau finkatu ahal izateko, apirilaren 25eko 861/1986 Errege Dekretuak, apirilaren 25ekoa, Toki Administrazioako funtzionarioen ordainsarien araubidea ezartzen duenak, laugarren artikuluan ezartzen du berariazko osagarria ezarri edo aldatzeko, aldezturik udal Korporazioak lanpostuaren balorazioa egin eta onartu behar duela.

Illo horretan, 2019an hasitako organigrama, lanpostuen katalogazio eta balorazio prozesuarekin, helburuetako bat zen legedira egokitzen ez ziren egoera irregularrak zuzentzea: horregatik, Rodriguez Viñals enpresak egindako lanpostuen balorazio proposamenean, agente lehenak eta agenteak, gaur egun dituzten lan txandak kontuan hartuta, berariazko osagarrian "lanaldiaren ezaugarrien" faktorea (J) eta "dedikazio bereziko eta bateraezintasun kengarri" faktorea (K) baloratu dira, besteen artean, lan txanda sistema bakoitzaren arabera eta ondoren zehaztuko diren beste elementu batzuen baitan.

Hortaz, bi kontzeptu desberdindu behar dira:

**A) "Lanaldiaren ezaugarrien"** faktorea (eskuliburuan J letraz seinalatuta): honela definitzen du balorazio eskuliburuak: *"Valora el nivel de molestia o dificultad relativa que el trabajador tendrá en el desempeño de su puesto, por razón de presencia en el trabajo."*

Lanaldiari dagokion faktorean daude bilduta aurreikus daitezkeen ekintza eta ekitaldi guztiak, urteko egutegian sartu behar direnak, eta horretarako, urte hasieran egutegian zehaztuta agertuko dira. Honetarako, hiru lan txandetan aritzen diren agenteen eta agente lehenen balorazioak faktore honetan eman daitezkeen puntuaziorik altuena esleitu du, alegia 275 puntu, eta goiz eta arratsaldean lan egiten duten agenteei 125 puntu esleitu zaizkie.

Puntuazio hau, udaleko beste hainbat lanpostuekin alderatuta, askoz ere handiagoa da; oro har, beste lanpostu batzuetan, 50 puntuko lan jarduna eman zaie "lanaldiaren ezaugarrien" faktorea baloratuta duten hainbat lanposturi.



**B) “Dedikazio berezia eta bateraezintasun kengarriaren”** faktorea (eskuliburuan K letraz seinalatuta): honela definitzen du balorazio eskuliburuak: *“Valora el nivel de exclusividad laboral que se adquiere con la Entidad, como consecuencia del desempeño del puesto de trabajo, al margen del tipo de jornada que se tenga establecida.”*

Dedikazioari dagokion faktore honetan, sor daitezkeen eta aurreikusi ez daitezkeen ezustekoei aurre egiteko kontingentziak definitzen dira eta horri 150 puntuko balorazioa eman zaio. Ustekabe horiei aurre egiteko, hiru lan txandatan lan egiten duten udaltzainei (agente lehenak eta agenteak) urtean 40 orduko dedikazioa eskatuko zaie, eta goizez eta goiz eta arratsalde aritzen direnei 15 orduko dedikazioa urtean.

Urteko dedikazio ordu hauek lanaldi arruntaren barnean sartuko dira; hau da, 1592 orduko lanaldian.

Balorazio proposamen honen ondorio nagusia da, urteko lan egutegia bere lan txanda sistemarekin eta zerbitzuak dituen beharrak kontutan hartuta egin beharko dela; hau da, Udalak zerrendatu beharko ditu zerbitzu bereziak eta ekitaldiak (inauteriak, San Joanak, azoka bereziak, kultur emanaldiak, kirol lasterketak, etab.) eta horiek egutegian txertatu beharko dira.

6.- Balorazioarekin zehaztutako zenbait lanposturen baldintzak finkatzea

6.1.- UDATEko administrarien lanpostuen balorazioaren atzeraeragina

UDATE zerbitzua eraldaketa prozesu batean murgildu zen 2018an, eta horren ondorioz, 2019ko maiatzean, herritarrei arreta integrala emateko zerbitzu gisa inauguratu zen, egitura berriarekin, funtzio gehiagorekin eta langile kopuru handiagoarekin. Horri esker, hainbat izapide egiten hasi ahal izan ziren sailetatik UDATEra, eta, horrela, herritarrei berehalako arreta eman lehen udaletxera hainbat bisita egitea eskatzen zuten kudeaketak egiterakoan. Bestalde, UDATEk Erregistro arloko Arreta Bulegoaren zerbitzua ematen du eta Tolosako Udaleko Erregistro Orokorrarekin lotutako izapide guztiak egiten ditu.

Horretarako, Izapideen Eskuliburua, ZERBIKAT aplikazioa osatu zen, Udaleko prozedurak estandarizatzeko, sistematizatzeko eta eguneratzeko, kalitatezko zerbitzu bat emateko helburuarekin. Azkenik, zerbitzuaren ordutegia aldatu egin zen eta 2019ko maiatzaren 7tik aurrera, zubietan eta ostegun arratsaldetan ere ematen da arratsaldeko 19:00ak arte.



Hots, zerbitzu honekin lotutako lanpostuen ezaugarriak nabarmen aldatu ziren: lanpostua betetzeko eskatzen den kualifikazioak ZERBIKAT aplikazioan jasotako izapideen zeharkako ezagutza eskatzen du; zerbitzuari esleitutako lanpostuetan zereginak eta funtzioak areagotu dira, ordura arte hainbat saili esleitutako zereginak beren gain hartu baitituzte. Aipatutako faktore horiek guztiek, zerbitzuaren ordutegia aldatzearekin eta handitzearekin batera, bere garaian jorratu ez zen balorazio berri bat egiteko beharra ekarri zuten.

Hau guztia 2019ko maiatzaren 13ko 768/2019 Alkatearen ebazpen bidez onartu zen; bertan, UDATE zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendu berria onartzeaz gain, hirugarren puntuan hauxe ebatzi zuen:

**“Hirugarrenik.-** UDATE zerbitzuarekin loturiko lanpostuen balorazioari lehentasuna ematea, Tolosako Udalak garatzear dagoen jardunbidearen barruan, eta balorazio horren aplikazioak atzeraeraginkortasuna izatea, 2019ko maiatzaren 7tik aurrera.”

Hortaz, atal honetan, Udateko langileei dagokionez, lanpostuen balorazioaren aplikazioak atzeraeragin ondorio desberdinak izango ditu, zehazki 2019ko maiatzaren 7tik aurrera.

## 6.2.- Zenbait lanposturen egitura, funtzioak eta balorazioa zehaztea (eranskinak).

Udalak onartzeko duen proposamen teknikoan ere bada zenbait lanposturi eragiten dien eranskin bat. Atal honetan bi bloke desberdintzen dira:

A) Batetik, ingeniari tekniko eta ingurumen teknikariaren lanpostuak baloratzeko bi aukera ematen dira, eta batean beste funtzio edo/eta erantzukizun gehigarriak jarri dira.

- “Ingeniari tekniko” lanpostuaren kasuan, balorazioaren eranskinean lanpostua birdefinitu egin da eta “Obretako ingeniari tekniko arduradun” izena jarri zaio; kasu honetan, lanpostuari behin-behinean esleituko litzaioke udal-proiektu eta -obra jakin batzuen erantzukizuna.

- “Ingurumen eta landa eremuko teknikaria” lanpostuaren kasuan, mugikortasuna eta trantsizio energetikoaren gaiak aldi baterako izaeraz ere erantsi zaizkio funtzio gehigarri gisa.





Lehen kasuan, balorazioaren eranskinean azaltzen diren funtzioak eta balorazioa aldi baterako izaeraz aplikatzea proposatzen da, eta bigarren kasuan, ingurumen eta landa eremuko funtzioekin geratzea proposatzen da eta hortaz, balorazioaren eranskina ez litzateke aplikatuko.

B) Bestetik, gaikuntza nazionalako funtzionarioen lanpostuak izendapen akzidental moduan beteta dauden aldietan, beste balorazio bat aplikatuko da, gaikuntza estatala duten titularrekin alderatuta desberdina, ezagutzak eta esperientzia desberdina direlako.

### 6.3.- Zenbait lanposturen lanaldi luzapenak

Rodriguez Viñals enpresak aurkeztutako balorazio eskuliburuaren arabera lanpostu zehatz batzuei dedikazio berezia eta bateraezintasun jartzeko proposamena egin du K faktorearekin baloratuta. Dena den, irizpide honek ez du inolako eraginik urteko lanaldiaren iraupenean (1592 ordu). Nolanahi ere, Udalean lanpostu batzuek, ohiko lanaldiaz gain beste lan jardun eta presentzia gehiago behar dute, eta horiek ez daude Rodriguez Viñalsen balorazio eskuliburuan aurreikusita. Kasu guztietan, Rodriguez Viñals enpresak egindako dokumentuan, gehiegizko lanaldia baloratzeko irizpideak proposatu dira: *“Balioak esleitzeko ez da kontuan hartu lanaldiko ordu kopurua; beraz, emaitza ekonomikoak lanaldi arruntarekin alderatuta dauden diferentzietara (gehiago edo gutxiago) egokitu beharko dira.*

*Horrenbestez, eta beste egoera posible batzuk alde batera utzita, adierazi behar da lanaldia luzatzea eskatzen den lanpostuetan kontuan izan behar dela egoera hori, berariazko osagarriari adostutako kopurua erantsita, edo, bestela, luzatutako lanaldiaren ehunekoaren arabera ordainsariak hainbanatuta ateratzen dena. Jakina, berariazko osagarriari erantsitako kopurua ezin da finko bihurtu, eta luzatutako lanaldia benetan betetzeari lotuta egongo da.”*

Horregatik, proposamenean jasotzen da honako lanpostu hauetan lanaldi luzatzeagatik berariazko osagarria aplikatzea, luzatutako lanaldiaren ehunekoaren arabera hainbanatuta ateratzen dena kontuan hartuz:

- Idazkaria
- Kontuhartzailea
- Diruzaina
- Hirigintza, obra, zerbitzuak mugikortasuna eta trantsizio energetikoko arduraduna
- Udaltzaingoko ofiziala

Kasu hauetan, lanaldia luzatzeagatik jaso beharreko ordainsaria luzatutako lanaldiaren ehunekoarekiko modu proportzionalean kalkulatu da, kontuan hartuta



lanpostu horietan urteko 1.685 orduko lanaldia aurreikusten dela (93 ordu gehiago urtean), Rodriguez Viñalsek egiten duen proposamena jasoaz.

#### 6.4.- Zenbait lanposturen lanaldien ezaugarrien faktorearen balorazioa

Halaber, aholkularitzak aurkeztutako balorazio eskuliburuaren arabera, lanpostu zehatz batzuei lanaldiaren ezaugarrien faktorea (J faktorea) puntuatzeko proposamena egin du, lanpostu bakoitzaren funtzio, zeregin eta batik bat lanpostuak dituen ezaugarri espezifikoak aintzat hartuta.

Honela, Udaltzaingoaren saileko langileak alde batera utzita —atal hau aurreko puntuan zehaztu da—, lanaldiarengatik balorazioan jasotako faktore berezia (J) honako lanpostu hauei aplikatuko zaie:

- Idazkaria
- Kontu hartzailea
- Hirigintza, obra, zerbitzuak mugikortasuna eta trantsizio energetikoko arduraduna
- Giza Baliabideetako arduraduna
- Udaltzaingoko ofiziala
- Kultura, jaiak eta festetako arduraduna
- Garapen ekonomiko, enplegu, merkataritza eta azoketako arduraduna
- Kiroletako arduraduna
- Komunitate eta gobernantzako arduraduna
- Musika Eskolako zuzendaria
- Euskaltegiko zuzendaria
- Kultura teknikaria
- Berdintasun teknikaria (A)
- Gazteria teknikaria
- Brigadako arduraduna
- Udateko administraria
- Musika Bandako zuzendaria
- Txistulari Bandako zuzendaria
- Merkataritza, azokak eta turismoko administrariak
- Musika Eskolako idazkari akademikoa
- Euskaltegiko idazkari akademikoa
- Brigadako lantaldea
- Euskaltegiko administraria
- Txistularia
- Kirol instalazioetako harreragilea
- Kirol monitoreak
- Eskoletako atezainak



Horrela, lanpostu bakoitzak jaso du lan saioagatiko puntuazioa (J), ohiko ordutegitik kanpo urtean zehar egiten duen bataz besteko lan saioa kontuan hartuta, beti ere urteko 1592 kopuruaren barruan. Konpentsazio hori, berariazko osagarriaren barruan sartu da.

Beraz, arratsaldetan edo asteburuetan lan egindako orduak (ohiko lan saiotik at), ordu arrunt gisa kontsideratuko dira eta ez dira, orain arte bezala, aparteko ordu gisa zenbatuko; izan ere, baloratutako faktore honekin lanpostuan faktore hori jadanik baloratua geratuko da. Horrek ekarriko du, honen eraginpeko lanpostuen kasuan, egutegia egokitzeko beharra, balorazioa indarrean sartzen den egunetik aurrera. Halaber, egutegi bat osatu beharko da urtean zehar aurreikus daitezkeen bilera zein ekitaldiak zehaztuta, beti ere 1592 ordu horien barruan.

## 7.- Osagarri pertsonal iragankorrak

Lanpostu batzuetan balorazioaren emaitzak ordainsaria murriztea dakar. Balorazio Eskuliburuan proposatutako irtenbideetako batekin bat etorrita, murrizketa hori aldi baterako osagarri pertsonal batekin konpentsatuko da, eta proposatutako ordainsaria gaur egun jasotzen den ordainketarekin parekatuko da. Nolanahi ere, osagarri pertsonal iragankor horri aplikatu beharreko araubidea Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeek ezarritakoa izango da.

Era berean, lanpostuen balorazioak onartzeak berekin ekarriko du 2005ean onartutako balorazioaren edo ondorengo balorazioen ondorioz ezarritako osagarri pertsonal iragankorrak indargabetzea.

Eranskin gisa, onartzeko proposatutako lanpostuei dagozkien balorazioen konparazio-taula bat erantsi da.

## 8.- Azterketa ekonomikoa

### a) Ordainsarien jatorria

Lanpostuen balorazioaren prozesu honen guztiaren emaitzak helburu nagusia izan du antolaketa eredu eguneratu bat finkatzea eta lanpostu bakoitzaren funtzio eguneratuak ere zehaztea, baina prozesu honen ondorio ekonomikoak ere aintzat hartu eta aztertu behar dira.

Ordainsarien emaitza ekonomikoa ondorioztatzeko orduan, legeak xedatzen dituen kontzeptuak kontuan hartuaz, emaitza ekonomikoak proposatu dira, batik bat destino osagarria eta berariazko osagarriari dagokionez. Honetarako, Rodriguez Viñalsek balorazioa egiteko "faktoreen puntuazioa" metodoa erabili du, gaur egun merkatuan fidagarriena eta erabiliena den metodologia, hain zuzen.



Hala, udal enplegatuen ordainsariek dituzten kontzeptuak kontuan hartuta, lanpostu bakoitzaren ordainsariak azterketa honetatik eratorri dira:

- Soldatari dagokionez, lanpostu bakoitzak dituen funtzioen arabera eta aintzat hartuta 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, ezarritako klasifikazioa taldeen baitan, lanpostu bakoitzari titulazio bat esleitu zaio da eta horren arabera, Estatuko Aurrekontu Orokorrek ezarritako titulazio taldeentzat (A1, A2, C1, C2 eta PA zehazki) dagozkion ordainsari kopuruak finkatu dira.

- Destino osagarriari dagokionez, lanpostu bakoitzak duen titulazio mailaren arabera, legeak gutxieneko eta gehieneko destino osagarriak finkatzen ditu; ondoren, lanpostuaren balorazioak aholkularitzak proposatutako eskuliburuan aurreikusitako bost faktoreen arabera (lanpostua betetzeko beharrezko titulazio akademikoak, bestelako espezializazio-ikasketak, beharrezko ikaskuntza-epea, aginte-erantzukizuna, antolaketaren emaitzetan izandako eraginagatiko erantzukizuna) destino osagarri maila bat finkatu du faktoreei emandako puntuazioa kontuan hartuta, eta balorazio eskuliburuan ezarritako puntuazio hori destino maila osagarri bihurtzen da (ikus eskuliburuan puntuazio bakoitzari emandako destino osagarria, titulazio taldearen eta puntuazioaren arabera).

- Berriazko osagarriari dagokionez, lanpostu bakoitzaren puntuazioa atera ahal izateko hamaika faktoreen arabera baloratu da: lanpostua betetzeko beharrezko titulazio akademikoak, bestelako espezializazio-ikasketak, beharrezko ikaskuntza-epea, aginte-erantzukizuna, antolaketaren emaitzetan izandako eraginagatiko erantzukizuna, neke intelektuala, neke fisikoa, ingurumen- eta psikologia-nekagarritasuna, arriskugarritasuna, lanaldiaren ezaugarriak eta dedikazio-erregimena.

Ondoren, faktore bakoitzari emandako puntuazioaren batuketa kontuan hartuta, lanpostu bakoitzari puntuazioa orokor bat esleitu zaio. Puntuazio orokor horretatik abiatuta, lanpostu bakoitzaren berriazko osagarriaren zenbateko ekonomiko bihurtzeko, txostenean azaltzen den moduan, puntuaren balioa eurotan bilakatzeko, balio bat esleitu behar zaio eta hori 18,84 puntutan finkatua geratu da, udal gobernu eta komitearen arteko negoziazio bilerak egin ostean. Balio hori kalkulatzeko, lanpostu guztien berriazko osagarrien kopuru ekonomikoaren batuketa guztia egin da eta batura lanpostu guztien berriazko osagarriaren puntuekin zatitu da.

#### b) Emaidza ekonomikoak

Proposamenak 666.362,00 euroko gastua aurreikusten du guztira.

Zenbateko hau baloraziotik eratorritako langileen ordainsarien igoerari dagokio, 2020ko uztailaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitarteko epean, balorazioaren atzeraeragina aplikatzea planteatzen baita.



Udateko langileen kasun atzeraeragina 2019 maiatzaren 7tik aurrerako ondorioekin aplikatu da, baina proposamenean ez da kontuan hartu data horretatik 2020ko ekanaren 30era arte izango duen eragina. Zenbateko hori 25.000,00 eurokoa izan daitekeela uste da, eta lehen aipatutako 666.362,00 euroei gehitu beharko litzaieke. Honen arabaera, ordainsarien igoera, guztira 691.362,00 euro dira.

Halaber, kontuan hartu beharko da enpresaren kargurako Gizarte Segurantzari dagokion zenbatekoa. Hau, 228.500,00 eurokoa izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko ordainsariei orokorrean %33a aplikatu zaie, nahiz ta langile batzuk kotizazio-oinarriaren gehieneko mugara iristen diren.

Beraz, guztizko gastua honako hau izango da:

Ordainsariak	691.362,00
Gizarte Segurantza	228.500,00
Guztira	919.862,00

c) Igoera justifikatzen duten arrazoiak

Ikusirik lanpostu guztien balorazioa egin ondoren ateratako emaitza ekonomikoa, igoera hau aintzat hartzeko honako faktore hauek eduki behar dira kontuan:

- Hainbat lanposturen azterketa egin ondoren, destino osagarria igo egin zaie, funtzio berriak betetzen dituztela aintzat hartuta; horrek, berariazko osagarrian ere eragina izan du, eta ordainsari osagarrietan igoera ekarri du.

- Honetaz gain, zenbait lanposturen funtzio eta zereginak ez zeuden egokituta edo aldatu egin dira, egungo errealitatera egokituz. Lanpostu nabarmenen artean, diruzaina, goi eta erdi mailako hainbat teknikari daude. Horiek lanpostu egokitzapen singularizatutzat har daitezke funtzioen eta zereginen egokitzapena jasan dutelako. Adibide nabarmenen artean honako hauek daude:

+ Diruzain lanpostua: 2019. urtean sortu zen lanpostu bat izanik eta gaikuntza nazionaleko funtzionarioen lanpostua den heinean, baloratu gabeko lanpostu bat zen eta prozesu honetan ordainsariak egokitu zaizkio.



+ Administrazio orokorreko zenbait teknikari: kontratazioa, idazkaritza, hirigintza, kontuhartzailtza eta giza baliabideetako lanpostuen balorazioa, kasu hauetan, nabarmen igo da, eta ordainsariak lanpostuei dagokien erantzukizun mailara egokitu dira.

+ Udateko administrariei ere funtzioak gehitu zaizkie eta horregatik ere, funtzio gehikuntza horrek isla izan du haien lanpostuaren balorazioan.

- Berriazko osagarrien kontzeptuan, egun islatuta ez zeuden kontzeptu batzuk sartu dira, aplikagarri den legedira egokitzeko; hain zuzen ere honako hauek:

+ Udaltzainen lanaldiगतिको eta dedikazioa kontzeptua barneratu zaie, orain arte ez zutena, eta horrekin, orain gauzez eta asteburuetan lan egiteगतिको zuten sistema desagertu eta ordainsariak legeak ezarritako parametroetara egokitu zaizkie. Beraz, balorazioa egin aurretik ezohiko plusen bidez edota ordu berezien bidez ordaintzen ziren kopuruak berriazko osagarrietan sartu dira, izaera estrukturala zutelako (txandatan lan egitea, edota Inauterietan eta San Joan jaietan egindako lana esate baterako, 2019 urtean 14.140,03 euroko kopurura iritsi zen).

+ Beste zenbait lanposturi ere lanaldiaren ezaugarri faktorean puntuak esleitu zaizkio (txostenean deskribatu den moduan) eta horrek berriazko osagarrian isla zuzena izan du, txostenaren 6.4 puntuan adierazitakoaren baitan.

- Oro har, lanpostuen balorazioak izan duen emaitza orokorra honako hau izan da: 102 lanpostuk igoera izan dute eta 70 lanposturi jaitsiera aplikatuko zaie; dena den, jaitsiera hori osagarri pertsonal iragankor baten bidez konpentsatuko dela adostu da.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

### I.- LANPOSTUEN ZERRENDAREN ETA PLANTILLAREN ARAUBIDEAK

5/2015 Errege Dekretu Legegileak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duenak, 74. artikuluan xedatutakoaren arabera, herri administrazioek bere lanpostuak antolatuko dituzte, lanpostuen zerrenden edota bestelako antolakuntza-tresnen bidez.

Aipatutako zerrendek honako hauek izan behar dituzte:

- a) Lanpostuaren izena
- b) Lanpostuaren sailkapen profesionaleko taldea
- c) Atxikitako eskalak
- d) Hornitze-motak
- e) Ordainketa osagarriak



Ondoren, aipatutako Legearen 75, 76 eta 77 artikuluek, pertsonal funtzionario zein lan-itunpeko pertsonala sailkatzeko irizpideak arautzen dituzte.

Bestalde, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 13. artikulua eta hurrengoek Lanpostuen Zerrendak arautzen dituzte, honako hauen arabera:

- f) Lanpostuen Zerrendaren xedek honako hauek dira: herri-administrazioetako egiturak arrazionalizatu, pertsonal baliabideak zehaztu, lanpostuak betetzeko baldintzak xedatu, eta azken horiek sailkatzea.
- g) Lanpostuen Zerrendak finko izaera duten eta aurrekontuan ezarri diren lanpostu guztiak jaso behar ditu, funtzionarioentzat, lan-itunpeko langileentzat eta pertsonal ebentualentzat gordetakoak berezita.
- h) Gutxienez honako hau arautu behar dute: lanpostuaren izena, Saila, dedikazio-erregimena, bete beharreko baldintzak —hizkuntza eskakizuna barne—, sailkapen profesionaleko taldea, eskala, azpieskala edo kategoria, eta funtzionarioentzat gordetako lanpostuetan, gainera, osagarriak (destinokoa zein berariazkoa), eta hornitze-mota.

Lege horren 16. artikulua Lanpostuen Zerrenda **Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko** betebeharra xedatzen du.

Askotan nahastu ohi dira lanpostua eta plaza, Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla. César Herrerok, *La planificación y organización de los recursos humanos en la administración local* lanean, honako kontzeptu hauek azaltzen ditu, zinez argigarriak: *Orain arte azaldutakoaren ondoren, lehen ideia bat muga dezakegu: plantillak plazekin du zerikusia, eta Lanpostuen Zerrendak lanpostuekin.*

*Errealitate berari buruzko kontzeptuak dira (Administrazio publiko baten antolaketa-unitate minimoa), baina ikuspegi desberdinetatik begiratuta.*

*Horrek hainbat nahasketa eragin ditu eta legegilea bera ere nahastera eraman du, kontzeptu bata nahiz bestea berdin erabili baititu, bereizi gabe, plano desberdinetan hedatzen den eraginkortasuna duten arren.*

justifikazioak alega zitzan egokitzat jotzen bazuen. Emandako epearen barruan, 2022ko apirilaren 7an, hkontratastak hau azaldu zuen: “*QUE DESPUÉS DE RECIBIR LA NOTIFICACIÓN EN LA MODIFICACIÓN DEL CONTRATO 2021SABI00007 NO SE REALIZARÁ NINGUNA ALEGACIÓN.*”. Beraz, enpresak entzunaldian alegazioak aurkezteari uko egin zion eta ebazpen-proposamenarekin ados zegoela azaldu zuen.

## **VI.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

- 1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*
- 2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioegatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.656.409 euro) baino altuagoa da; gainera, kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, bost urtekoa denez, Udaleko Osoko Bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna. Horiek horrela, behin kontratazio jardunbidea onartuta eta lizitazioari hasiera emanda, osoko bilkurak ebatzi zuen haren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte, eraginkortasun eta bizkortasun arrazoiengatik, eta 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.4. artikuluan xedatutakoaz baliatuz. Kasu honetan berriz, Tokiko Gobernu Batzar berezia egitea beharrezkoa litzatekenez, aproposa dirudi gaia Udaleko Osoko Bilkuraren gain uztea, aurretik behar den irizpena jasota.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.



Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren eta kontuhartzailearen aldeko txostenak ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2022ko ekainaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honakoa hau izanda da:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasabán, Ander Figuerido Zubiria, Kristina Pelaez Errazkin, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

### IRIZPENA

**Lehena.-** Onartzea Tolosako udal eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzu-kontratua aldatzea covid-19 koronabirusak sortutako egoeragatik eta Osasun Ministerioak emandako garbiketa protokoloen ondorioz, kontratuan izandako gailuekin fakturak ordaintzeko. Hori guztia, SPKLren 204. artikuluan eta kontratua arautzen duten administrazio baldintza partikularren pleguetan xedatutakoaz baliatuta.

#### **Bigarrena.-**

Aurrekoaren ondorioz, 2022. urteko urtarileko, otsaileko eta martxoko garbiketa gehigarrien ondorioz sortutako fakturak ordainzea 7.975,11 euroko zenbatekoagatik (6.591 euro printzipala eta 1.384,11 euro BEZa).

KORONABIRUSAGATIK, KEMSALINEN GASTU GEHIGARRIAK

2.022	URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	guztira
ARANBURU	331,50	331,50	253,50	916,50
EPA	312,00	331,50	195,00	838,50
GOROSABEL	331,50	331,50	507,00	1.170,00
SAMANIEGO	1.326,00	1.326,00	1.014,00	3.666,00
				<b>6.591,00</b>

**Hirugarrena.-** KELSALIM, S.L. enpresari ebazpenaren berri ematea.

**Laugarrena.-** Aldaketa administrazio-dokumentuan formalizatzea eta erabakia argitaratzea kontratatzailearen profileen.

**Seigarrena.-** Erabaki horiek jakinaraztea Hirigintza Sailari, Ogasun eta Finantza Administrazio Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier





Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Tolosako udal eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren aldatzea, covid-19 gaitzak sortutako egoeratik eta Osasun Ministerioak emandako garbiketa protokoloen ondorioz, kontratuan izandako gailuzko fakturak ordaintzeko.

#### **4. ONARTZEA TOLOSAKO ETXEZ ETXKO LAGUNTZA ZERBITZU-KONTRATUAREN ESPEDIENTEA PRESAKOTZAT JOTZEA, ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.**

### **Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko ekainaren 21eko irizpena**

#### **I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Kontratuaren xedea	Tolosako etxez etxeko laguntza zerbitzua
Unitate sustatzailea	Gizarte Zerbitzu eta Osasun Saila
Espedientea	2022SABI0004

#### **II.- AURREKARIAK**

**Lehenena.-** Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzu eta Osasun Saileko buruak 2022ko apirilaren 4an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: administrazio baldintza partikularren plegua; preskripzio tekniko partikularren plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak. **Lizitazio hau, xede bera zuen 2021SABI0011 lizitazioa huts deklaratu izanaren ondorio da.**

2021eko otsailaren 5ean Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S25 60044-2021-ES) argitaratu zen lizitazioaren aurretiazko iragarkia.

**Bigarrena.-** 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), V. Kapituluaren (308. artikulutik aurrera), zerbitzu kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, edukia eta limiteak, prezioa kalkulatzeko era eta kontratistaren erantzukizuna.





Hirugarrena.- Txosten berean, kontratuaren xehetasunak aipatzen zituen, beste batzuen artean: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak.

Laugarrena.- Halaber, aipatutako txostenean, SPKLren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen dira. Aipatutako legeak hau zehazten du 28. artikuluan:

*Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan. 1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publikitatez gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.*

### **III.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA**

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuari buruzkoak, 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espedientea osatu behar da. Espedientea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da, eta 117. artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatu da:

- Espedientearen unitate sustatzaileko arduradunak egindako kontratazio-proposamena.
- Berezko baliabideak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Preskripzio tekniko partikularren plegua.
- Lan-hitzarmena eta enpresa-akordioa.
- Tolosako etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen erregelamendua.
- Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S25 60044-2021-ES) argitaratutako lizitazioaren aurretzeko iragarkia.
- Azterketa ekonomikoa.
- Administrazio baldintza partikularren plegua.
- Lege-txostena.
- Fiskalizazio-txostena.

Aipatu behar da, udal kontuhartzaileak 2022ko maiatzaren 9an egindako fiskalizazio-txostenaren emaitza, **erreparatu etenarazlea** izan zela udal-aurrekontuaren partidan ez baitzegoen nahiko krediturik kontratuaren betebeharrak asetzeko. Hortaz, 2022ko maiatzaren 19ko 2022/1567 alkatetzaren dekretuaren bitartez onartu zen **aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa**, eta horrek



ahalbidetzen du SPKLren 116. artikuluan xedatutakoa betetzea, hau da, kreditu nahikoa eta egokia dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria espedientean egotea lizitazioari hasiera eman ahal izateko.

Kontratu honek administrazio-izaera du, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 25.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat etorrira; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 17. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten duen:

*Zerbitzu-kontratuak objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo obraz edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak. Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.*

**Bestalde, zerbitzu-kontratu honetan honako hau kontuan izan behar da:**

Lehen.- Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia 6.899.107,33 eurokoa da**, aintzat hartuta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 101.1.a). artikuluan xedaturikoa.

PRESUPUESTO BASE LICITACIÓN						20% modificaciones previstas	10% adicional unidades ejecución	VALOR ESTIMADO
1 años sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA	5 años sin IVA	5 años con IVA			
1.000.472,18	1.040.491,07	2.030.508,52	2.111.728,86	5.307.005,64	5.519.285,86	1.061.401,13	530.700,56	6.899.107,33

*Las cifras de este cuadro se han obtenido de los datos de los cuadros del anexo IV. Dado que se ha considerado un incremento salarial anual del 3%, el importe referido a 5 años no se obtiene del producto del importe para 1 año multiplicado por 5.*

Bigarrena.- Kontratazio honetan **ez da lotetan banatzea aurreikusi**, eta hori justifikatu da espedientean. Hauexek dira lotetan ez banatzeko arrazoiak: kontratuaren xedean jarduketa integrala eskatzen denez, eta kontuan hartuta kontratuaren xede diren jarduera eta lan guztiak espazio fisiko berean garatuko direla, ez da egokia hura lotetan banatzea; izan ere, kontratuaren xedean jasotako hainbat prestazio modu independentean egiteak zaildu egingo luke hura ikuspegi teknikitik behar bezala gauzatzea. Era berean, koordinazioa beharrezkoa da kontratuko hainbat prestazioren exekuzioan, eta, horiek lotetan banatuz gero, horiek gauzatzea ezinezkoa izango litzateke, edo, gutxienez, jarduketa eraginkor, garden eta osoaren printzipioekin talka egingo luke.

Hirugarrena.- Zerbitzu-kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, erregulazio harmonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan daitezke. Kasu honetan, kontratuaren xedea SPKLren IV. Eranskinean jasotako gizarte-zerbitzuetako kontratu bat da hau, beraz, 22.1 artikuluren c) idatz-zatian xedatzen den kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen duenez (750.000 €), araudi horretara dago lotuta; beraz, **erregulazio harmonizatupeko kontratua da hau**. Horrenbestez, lizitazioaren iragarkia, **kontratatuaren profileen argitaratzeaz gain, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian ere argitaratu behar da.**

ESKUE38dfb9a-b7d3-494c-bc8c-9db083d115e13



Laugarrena.- SPKLren 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, kontratazioari buruzko errekurtsio berezia tartekatu ahal izango da, balio zenbatetsiak 100.000 euroko kopurua gainditzen badu; beraz, kasu honetan atalase hori gainditzen duenez, **kontratazioari buruzko errekurtsio bereziaren menpe egongo da lizitazioa**. Horrenbestez, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontratua ezingo da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitazailerei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun baliouduneko epea igaro baino lehen.

Bosgarrena.- Bestalde, administrazio baldintza partikularren pleguaren I. tituluaren IV. Kapituluaren eta horren I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKLk 86., 87., eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena.- Halaber, eta ordainagirien ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa:

*4. Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe 210. artikuluan 4. apartatuan ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketarako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. Interesak sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera.*

#### IV.- ESPEDIENTE MOTA

SPKLk 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditentak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen ere, arruntak edo ohikoak, presakoak eta larrialdietakoak. Presakoak, 119. artikuluan arautzen dira honako honen arabera: “Presako izapidetzea erabili ahal izango da atzera ezineko premia daukaten kontratuen espeditentak edo interes publikoa dela-eta kontratuen adjudikazioa bizkortu beharra dutenak izapidetzeko. Horretarako, kontratazio-organoak egindako urgentzia adierazpena eduki behar du espeditentak, behar bezala arrazoitua”. Halaber, presakotzat jotzeko legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: “Edo hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako edo Estatuko defentsari eragiten dioten premiak daudelako Administrazioak berehala jardun behar badu...”.



Kasu honetan, ez da Legearen 119 eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik beraz, kontratazio-espeditente hau **presako tramitazioaren** bidez izapidetuko da, administrazio baldintza partikularren pleguaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritz.

**Presako tramitazioa:** Espediente hau 2021SABI0011 kontratazio-espeditentea huts deklaratu izanaren ondorioa da. Beraz, SPKLren 119. artikuluan xedatutakoaren arabera, espeditente hau premia atzerazekin bati erantzuteko kontratua denez eta interes publikoko arrazoiengatik esleipena azkartu behar denez, kontratazio-organoak presakotzat jo du. Hori dela eta, espeditenteak lehentasuna du izapidetzeko. Hori dela eta, eta SPKLren 156. artikuluko 3) idatz-zatiko b) letran xedatutakoarekin bat etorritz, enpresa lizitatuaren proposamenak bitarteko elektronikoen bidez baino ez dira aurkeztuko, HOGEI (20) EGUN NATURALEKO epean, kontratuaren lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

## V.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

**Epea:** Kontratuak bi urteko iraupena izango du, beste hiru urtez luzatzeko aukerarekin; beraz, gehieneko iraupena bost urtekoa izan daiteke.

**Balio zenbatetsia:** Kontratuaren balio zenbatetsia **6.899.107,33** eurokoa da SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak.

SPKLren 204. artikuluan xedatutakoaren arabera, ehuneko 20ko aldaketa aurreikusi da. Halaber, SPKLren 309. artikuluan xedatutakoaren arabera, prezioa zehazteko sistema egikaritze-unitateei buruzkoa denez (unitateko prezioak), kontratuaren prezioaren ehuneko 10eko aldaketa hartu da kontuan.

PRESUPUESTO BASE LICITACIÓN						20% modificaciones previstas	10% adicional unidades ejecución	VALOR ESTIMADO
1 años sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA	5 años sin IVA	5 años con IVA	1.061.401,13	530.700,56	6.899.107,33
1.000.472,18	1.040.491,07	2.030.508,52	2.111.728,86	5.307.005,64	5.519.285,86			

*Las cifras de este cuadro se han obtenido de los datos de los cuadros del anexo IV. Dado que se ha considerado un incremento salarial anual del 3%, el importe referido a 5 años no se obtiene del producto del importe para 1 año multiplicado por 5.*

### Lizitazioaren oinarri-aurrekontua:

**2.111.728,86 euro**, horietatik, 2.030.508,52 euro printzipalari dagozkio, eta 81.220,34 euro, BEZari (% 4).

**Aurrekontuaren partida:** Kontratuaren xede diren lanak, **0500.227.04.231.10** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatzeko dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoetara aurre egiteko

	meses	valor estimado	cuota a pagar (IVA incluido)
2022	5	442.250,47	459.940,49
2023	12	1.061.401,13	1.103.857,17
2024	7	619.150,66	643.916,68
	5	442.250,47	459.940,49
2025	12	1.061.401,13	1.103.857,17
2026	12	1.061.401,13	1.103.857,17
2027	7	619.150,66	643.916,68
modificaciones		1.061.401,13	
unidades adicionales		530.700,56	
<b>TOTAL</b>	<b>60</b>	<b>6.899.107,33</b>	<b>5.519.285,86</b>

*Aurreikusita dago kontratua 2022ko abuztuaren 1ean hasia. Se estima que el contrato dé comienzo el 1 de agosto de 2022*

*Para poder estimar las cuotas anuales, se ha considerado el valor estimado total y se ha prorrateado en función de los meses correspondientes.*



aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

Erantsitako taulan, zerbitzua emateko ordu-motak, horietako bakoitzaren urteko ordu-kopurua eta horien gehieneko prezio unitarioa banakatu dira. Adierazitako prezioak Udalak ordaindu beharreko gehieneko unitate-prezioa dira, eta lizitatzailleek beherezko hobekuntza egin beharko dute.

PRECIOS UNITARIOS MÁXIMOS DE REFERENCIA				
tipo de horas	horas/año	precio unitario	IVA (4%)	precio unitario con IVA
hora normal	42.000	23,18 €	0,93 €	24,11 €
hora nocturna	500	25,42 €	1,02 €	26,44 €
hora festiva	1.500	29,91 €	1,20 €	31,10 €

Como se ha indicado anteriormente, se ha aplicado un incremento anual del 3% para el cálculo de todas las magnitudes del contrato, pero, dado que no existe la posibilidad de revisar anualmente los precios unitarios, **se ha calculado un precio para cada uno de esos 5 años y se ha realizado el promedio de los mismos**. Sobre este precio unitario promedio será sobre el que los licitadores tengan que realizar sus ofertas a la baja.

Estos precios, una vez aplicada la baja ofrecida por los licitadores, permanecerán invariables durante toda la duración del contrato.

### **Memoria ekonomikoan jasotako irizpideak**

- Egungo enpresa kontratistak aurkeztutako soldata errealak jasotzen dituen taula hartu da abiapuntutzat (ereduzko soldata bat kontuan hartuta), 2022ko martxoaren 31tik aurrerako ondorioekin. Datu horiekin 2022an (kontratuaren lehen urtean) indarrean egongo den erreferentziako prezioa lortu da.

- Urteko ehuneko 3ko igoera hartu da kontuan kontratuaren gainerako lau ekitaldietako bakoitzerako. Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legeak kontratuaren prezioen urteko berrikuspenak egitea eragozten duenez, **erreferentziako prezio bat lortu da, kontratuak gehienez iraun dezakeen 5 urteetako prezio unitarioen batez bestekoa. Beraz, erreferentziako prezio unitario hori, lizitatzailleek beherezko eskaintzak egin beharko dituztenak, finko mantenduko da kontratuaren aldi osoan.**

- Aipatu den enpresa-akordioa dela eta, eta kontuan hartuta akordio hori kontuan hartu dela kalkulu guztiak egiterakoan, **Tolosako Udalaren helburua da ehuneko 3ko urteko soldata-igoera hori langileen nominetan aplikatzea.**

- Urtean 1.600 orduko lanaldia hartu da kontuan, aipatutako enpresa-akordioan ezarritakoa oinarri hartuta. Egun bakoitzeko 7 orduko lanaldia ezartzen du, eta urtean 225 lanegun daude, batez beste (365 egun – 14 jaiegun – 30 opor-egun – 48 larunbat – 48 igande).

- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuko langileen ezaugarri bereziak direla eta, eta plantillaren lan-egonkortasuna lortzeko asmoz, ezarri da kontratua **gauzatzen duten langile guztien artean plantilla mugagabearen gutxieneko ehunekoa, gutxienez, ehuneko 70 izango dela.**

ESKUE38dfb9a-b7d3-494c-bc8c-9db083d115e13



- Ehuneko 8ko absentismo-tasa hartu da kontuan, Gizarte Segurantzatik eratorritako kostuak ehuneko 34,50ean kalkulatu dira, enpresaren mozkin industrialak (marjina) ehuneko 6an kalkulatu da eta gastu orokorrak ehuneko 8an. Era berean, 4 hiru-erdiak antzinasuna eta 14 ordainsari hartu dira kontuan (12 arruntak eta 2 apartekoak).
- Lau lanbide-kategoria mota hartu dira kontuan: etxez etxeko laguntzaileak, koordinatzaile bat, zuzendari bat eta administrari laguntzaile bat.
- Orduei eta zenbatekoari dagokienez, talderik garrantzitsuena etxez etxeko laguntzaileen taldea da, urtean 44.000 lanordu hartu baitira kontuan. Era berean, beharrezkotzat jo da zerbitzuaren koordinatzaile bat izatea lanaldi osoan, zuzendari bat lanaldiaren ehuneko 15ean eta administrari laguntzaile bat lanaldi erdian.
- Lanorduei egindako erreferentzia orotarako, **erabiltzailearen etxean egindako benetako lanordutzat hartuko da; beraz, bizilekuen arteko joan-etorriak lizitatuak kalkulatu beharko dituzte, horiek langileei ordaindu beharko baitizkiete, eta ez dira inola ere zenbatuko etxean benetan egindako lantzat.**
- Etxez etxeko laguntzaileen 44.000 lanorduek honela banatuko dira: 42.000 ordu ordutegi arruntean, 500 ordu gaueko ordutegian eta 1.500 ordu jaiegunetan.
- Kontratuaren xede diren lanak etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren ohiko lanak dira, eta urteko egun guztietan egingo dira, erantsitako tauletan jasotako prezioen arabera. Prezio horiek erreferentzia gisa erabili dira kontratuaren prezioa kalkulatzeko.
- Hiru prezio unitario hartzen dira kontuan zerbitzu-modalitate bakoitzerako: ordu arrunta, gaueko ordua eta jaieguneko ordua. Udalak ezarritako gehieneko prezio unitarioaren gainean, enpresek beheranzko eskaintza egin beharko dute.
- SPKLren 204. artikuluan xedatutakoaren arabera, administrazio-klausula zehatzen agirian ehuneko 20ko aldaketa aurreikusi da. Era berean, SPKLren 309. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, prezioa zehazteko sistema egikaritze-unitateei buruzkoa denez (unitateko prezioak), kontratuaren prezioaren ehuneko 10eko aldakuntzat hartu da.

## **VI.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA**

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako esleipen-jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *“Normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz, salbu eta...”*.

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publikitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala, proposamen tekniko eta, batik bat, ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritziz delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz egin beharko da.





Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, eta administrazio baldintza partikularren pleguaren 20. klausulan eta haren I. Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura baitute. Kasu honetan, zifra edo ehunekotan baloratu daitezkeen irizpideak ehuneko 51 dira, zifra edo ehunekotan baloratu ezin daitezkeenak, berriz, ehuneko 49.

Azkenik, berme-epari dagokionez, SPKLren 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, urtebetean finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak 1.000.000 euroko kopurua gainditzen baitu.

## **VII.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA**

Kontratazio-espeditentearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den administrazio baldintza partikularren plegua eta preskripzio tekniko partikularren plegua aztertu dira, kontuan harturik SPKLren 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa, eta egiaztatu da araututako xedapenekin bat datozela.

## **VIII.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

*1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*

*2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateetako alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*





Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 6.899.107,33 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.656.409 euro) baino handiagoa da; halaber, kontratuaren iraupena lau urte baino gehiagokoa denez, **Udalbatzaren Osoko Bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren eta kontuhartzailearen aldeko txostenak ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2022ko ekainaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honakoa hau izanda da:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasabán eta Jose Mari Villanueva Telleria.

**Abstentzioak:** Ander Figuerido Zubiria, Kristina Pelaez Errazkin eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

### **IRIZPENA**

**Lehena.-** Presakotzat jotzea eta onartzea Tolosako etxez etxeko laguntza zerbitzu-kontratuaren espedientea eta lizitazioari hasiera ematea.

**Bigarrena.-** Kontratu honen ezaugarriak onartzea:

**Epea:** Kontratuak bi urteko iraupena izango du, beste hiru urtez luzatzeko aukerarekin; beraz, gehieneko iraupena bost urtekoa izan daiteke.

**Balio zenbatetsia:** Kontratuaren balio zenbatetsia **6.899.107,33** eurokoa da SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak.

SPKLren 204. artikuluan xedatutakoaren arabera, ehuneko 20ko aldaketa aurreikusi da. Halaber, SPKLren 309. artikuluan xedatutakoaren arabera, prezioa zehazteko sistema



egikaritze-unitateei buruzkoa denez (unitateko prezioak), kontratuaren prezioaren ehuneko 10eko aldaketa hartu da kontuan.

PRESUPUESTO BASE LICITACIÓN						20% modificaciones previstas	10% adicional unidades ejecución	VALOR ESTIMADO
1 años sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA	5 años sin IVA	5 años con IVA			
1.000.472,18	1.040.491,07	2.030.508,52	2.111.728,86	5.307.005,64	5.519.285,86	1.061.401,13	530.700,56	6.899.107,33

Las cifras de este cuadro se han obtenido de los datos de los cuadros del anexo IV. Dado que se ha considerado un incremento salarial anual del 3%, el importe referido a 5 años no se obtiene del producto del importe para 1 año multiplicado por 5.

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **2.111.728,86 euro**, horietatik, 2.030.508,52 euro printzipalari dagozkio, eta 81.220,34 euro, BEZari (% 4).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, **0500.227.04.231.10** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatu dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoak aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

	meses	valor estimado	cuota a pagar (IVA incluido)
2022	5	442.250,47	459.940,49
2023	12	1.061.401,13	1.103.857,17
2024	7	619.150,66	643.916,68
	5	442.250,47	459.940,49
2025	12	1.061.401,13	1.103.857,17
2026	12	1.061.401,13	1.103.857,17
2027	7	619.150,66	643.916,68
modificaciones		1.061.401,13	
unidades adicionales		530.700,56	
<b>TOTAL</b>	<b>60</b>	<b>6.899.107,33</b>	<b>5.519.285,86</b>

Aurreikusita dago kontratua 2022ko abuztuaren 1ean hasia izango dela.  
Se estima que el contrato dé comienzo el 1 de agosto de 2022

Para poder estimar las cuotas anuales, se ha considerado el valor estimado total y se ha prorrateado en función de los meses correspondientes.

Erantsitako taulan, zerbitzua emateko ordu-motak, horietako bakoitzaren urteko ordu-kopurua eta horien gehieneko prezio unitarioa banakatu dira. Adierazitako prezioak Udalak ordaindu beharreko gehieneko unitate-prezioa dira, eta lizitatuzaileek beharrezko hobekuntza egin beharko dute.

PRECIOS UNITARIOS MÁXIMOS DE REFERENCIA				
tipo de horas	horas/año	precio unitario	IVA (4%)	precio unitario con IVA
hora normal	42.000	23,18 €	0,93 €	24,11 €
hora nocturna	500	25,42 €	1,02 €	26,44 €
hora festiva	1.500	29,91 €	1,20 €	31,10 €

Como se ha indicado anteriormente, se ha aplicado un incremento anual del 3% para el cálculo de todas las magnitudes del contrato, pero, dado que no existe la posibilidad de revisar anualmente los precios unitarios, se ha calculado un precio para cada uno de esos 5 años y se ha realizado el promedio de los mismos. Sobre este precio unitario promedio será sobre el que los licitadores tengan que realizar sus ofertas a la baja.

Estos precios, una vez aplicada la baja ofrecida por los licitadores, permanecerán invariables durante toda la duración del contrato.

**Hirugarrena.-** Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren memoria ekonomikoa, administrazio baldintza partikularren plegua eta preskripzio tekniko partikularren plegua.

**Laugarrena.-** Espedientea presakotzat jotzearen ondorioz, kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagokion iragarkia argitaratzea Euskadiko Kontratatuzailearen Profilean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, lizitatuzaileek beren proposamenak 20 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

**Bosgarrena.-** Erabaki horiek jakinaraztea Gizarte Zerbitzu eta Osasun Sailari, Ogasun eta Finantza Administrazio Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:



**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa eta Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe.

**Aurkako botoak:** Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz onartu du Tolosako etxez etxeko laguntza zerbitzu-kontratuaren espedientea presakotzat jotzea, eta lizitazioari hasiera ematea.

## **5. ONARTZEA TOLOSAKO UDALERRIAN ARLO SOZIOEDUKATIBOAN ETA PSIKOSOZIALEAN ESKU-HARTZEKO ZERBITZU-KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA.**

### **I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Kontratuaren xedea	Tolosako udalerrian arlo sozioedukatiboan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua.
Unitate sustatzailea	Gizarte Zerbitzu eta Osasun Saila
Espedientea	2022SABI0003

### **II.- AURREKARIAK**

Lehen.- Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzu eta Osasun Saileko buruak egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: Administrazio baldintza partikularren plegua; preskripzio tekniko partikularren plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

2021eko otsailaren 5ean Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S25 60046-2021-ES) argitaratu zen lizitazioaren aurretzeko iragarkia.

Kontratazio espediente hau, 2020SABI0006 eta 2021SABI0009 kontratazio-espedienteak huts deklaratu izanaren ondorioa da. Beraz, xede bera zuen lizitazioa jarri zen martxan berri.

Bigarrena.- 2022ko martxoaren 31n Osoko Bilkurak, besteak beste, onartu zuen Tolosako udalerrian arlo sozioedukatiboan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratuaren espedientea eta lizitazioari hasiera eman zion.



Hirugarrena.- Proposamenak aurkezteko epean, NURA GIZARTE ELKARTEA (G20779187) enpresa izan zen bere eskaintza aurkeztu zuen bakarra.

Laugarrena.- Behin izapidetze guztia legearen arabera egin eta gero, 2022ko ekainaren 7an kontratazio-mahaiak erabaki zuen NURA GIZARTE ELKARTEA (G20779187) enpresari kontratua adjudikatzeko beharrezkoa den dokumentazioa errekeritzea.

Bosgarrena.- Aurreko guztia kontuan hartuz, enpresak eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu zuenez, kontratazio-mahaiak 2022ko ekainaren 20an proposatu zion kontratazio-organoari NURA GIZARTE ELKARTEA (G20779187) enpresari adjudikatzea Tolosako udalerrian arlo sozioedukatioan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratua, 833.217 euroko prezioan bi urtetarako, BEZa salbuetsita.

### **III.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

*1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*

*2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateetako alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.656.409 euro) baino txikiagoa da; beraz, alkate-lehendakariarena izango litzateke eskumena, baina kontratuaren iraupena lau urte baino gehiagokoa denez, **Udaleko Osoko Bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren



ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren eta kontuhartzailearen aldeko txostenak ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2022ko ekainaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honakoa hau izanda da:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasabán, Ander Figuerido Zubiria, Kristina Pelaez Errazkin, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

### **IRIZPENA**

**Lehena.-** Lizitazio-egintzaren baliozkotasuna deklaratzeko.

**Bigarrena.-** NURA GIZARTE ELKARTEA (G20779187) enpresari adjudikatzea Tolosako udalerrian arlo sozioedukatiboan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratua, honako prezio honetan: nagusia, 833.217 euro bi urtetarako BEZa salbuetsita.

**Hirugarrena.-** Xedatzea kontratuaren iraupena bi urtekoa izango dela kontratua formalizatzen den momentutik kontatzen hasita, bi alditan luzatzeko aukerarekin: lehenengoan bi urtekoa eta bigarrenetan urtebetekoa. Beraz, gehieneko iraupena bost urtekoa izan daiteke.

**Laugarrena.-** Adieraztea enpresak lizitazioa arautzen duten pleguetan xedatutakoa bete beharko duela, inolako erreserbarik gabe.

**Bosgarrena.-** SPKLren 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera ohartaraztea, kontratazioari buruzko errekurtsu berezia tartekatu ahal izango denez, balio zenbatetsiak 100.000 euroko kopurua gainditzen duelako, 153. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontratua ezingo dela formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzaillei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

**Seigarrena.-** Erabaki horiek jakinaraztea Gizarte Zerbitzu eta Osasun Sailari, Ogasun eta Finantza Administrazio Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Tolosako udalerrian arlo sozioedukatihoan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratuaren adjudikazioa.

**6. ONARTZEA TOLOSALDEA GARATZENEN ERABAKI-PROPOSAMENA, TOLOSAKO UDALAREN BALIABIDE PROPIO IZENDATZEKO, ESKUALDEKO BESTE UDALEKIN BATERA.**

**Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko ekainaren 21eko irizpena**

**I.- AURREKARIAK.**

Tosalaldea Garatzen S.A. Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil udalerrien Eskualdeko Garapenerako Elkarte da. 1994. urtean sortu zen eskualdearen garapen sozio-ekonomikoa sustatzeko eta programa desberdinetan lankidetzan dihardu garapen ekonomiko eta sozialarekin zerikusia duten erakundeekin, hala nola Eusko Jaurlaritzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuarekin (SPRI) eta SPRILUR bere filialarekin, LANBIDEREkin, Estatuko Ministerio desberdinekin eta Europako Gizarte Funtzarekin.

Tosalaldea Garatzen S.A. Eskualdearen Garapenerako Elkarte sozietate anonimoa da, kapital osoa publikoa da, udal akziodunen titulartasuneko, eta ez du irabazi-asmorik. Administrazio Kontseiluan eta Batzar Orokorrean, Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa Villabona eta Zizurkilgo udalen ordezkari politikoak daude.



Sozietatearen xedea, Estatutuen hirugarren artikuluan jasotzen da (azkeneko idazlana, 2015eko otsailaren 11n Larraitx Franco Galarraga Notarioaren aurrean izenpeturiko eskritura publikoa, 91. protokolo zk.koa) non, hitzez-hitz, honako hau jasotzen da:

**“HIRUGARREN ARTIKULUA.- Gizarte xedea.**

*Elkartearen xedea izango da Tolosaldeko udalen biziberritze eta ekonomi-garapenerako dezaketan jarduera guztiak burutzea, enpresen eta enpleguaren sustapena barne, eta baita herrietako zerbitzu publikoen eskaintzarako elkar-lana eta koordinazioa indartu eta sostengatzea ere, Estatutu hauetako 1.2 artikulua dionaren arabera eta **indarrean dagoen legeriak udalerri horretarako aitortzen dien eskumenen esparruan.**”*

Honetaz gain, Estatutuen Laugarren artikulua sozietateak zein esparrutan garatuko duen bere jardura arautzen du:

- Ekonomia sustapenaren arloan.
- Lanbide heziketan.
- Lurralde eta ingurugiroaren antolamenduan eta kudeaketan.
- Udal zerbitzu publikoen eskaintzan
- Beste administrazioek egindako delegazioen esparruan.

Estatutuen 12. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Sozietatearen Batzar Nagusia udal akziodun bakoitzaren ordezkari banak osatuko du, eta bertan parte hartzearen araberrako boto-ahalmena izango du.

Estatuko Kontu-hartzailatza Nagusiak egindako 2021eko sektore publikoko erakundeen inbentarioa kontsultatuta, Tolosaldea Garatzen SA sozietatea sailkatu gabe dago oraindik. Egoera honi aurre egiteko, baltzuren Administrazio Kontseiluak, txosten juridiko bat enkargatu zion sozietatearen aholkulari juridikoa den Alex Castro abokatuari. Egindako txostenean, Baliabide propioari legez eskatzen zaizkion baldintzak aztertu ziren.

Sozietatearen Administrazio-Kontseiluak, 2021eko uztailaren 5ean egindako bileran, erabaki zuen Tolosaldea Garatzen udal bazkideen berezko baliabide izendatzeko prozesua abian jartzea. Tolosako udaleko Erregistro Nagusian 2021eko uztailaren 9an aurkezturiko idazkian (6810 zk.a duena) aipaturiko erabakiaren ziurtagiria jakinarazi zitzaion udal honi.

Xede horretarako, sozietateak espediente bat osatu behar zuen:

- Estatutuen aldaketa proposatzen duen memoria justifikatzailea
- Sozietatearen ustiapeneko diru-sarrerak, **% 80tik gora**, sozietatea osatzen duten udalek emandako enkarguetatik edo hartutako erabakietatik datozela justifikatzen duen azterlan ekonomikoa.
- Sozietateak baliabide propioaren funtzioa betetzeko dituen giza baliabideak, antolamendu-baliabideak eta baliabide teknikoak egiaztatzen duen azterlana.





- Merkataritza-sozietatearen estatutuak aldatzeko beharrekoak diren gainontzeko dokumentuak.

2022ko ekainaren 2an, sozietateren ordezkariak honako dokumentazioa aurkeztu du Tolosako udaleko Erregistro nagusian, 5199/2022 zenbakiarekin erregistratuta:

- Administrazio Kontseiluko idazkariak emandako ziurtagiria, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran hartutako erabakia jasotzen duena, alegia, Tolosaldea Garatzen sozietatearen udal bazkideen berezko bitarteko izendatzeko prozesua abian jartzeari buruzkoa.
- Baltzuren Letraduaren lege txostena, 2021eko otsailaren 19koa.
- Ustiapeneko diru sarreraren azterketa, kudeatzaileak egindakoa. Bertan egiaztatzen da bere diru-sarreraren % 80 baino gehiago udal bazkideek egindako enkarguetatik datozela.
- Baliabide propioa betetzeko baliabide tekniko eta pertsonal, eta antolaketazkoen egokitasuna egiaztatzen duen txostena, kudeatzaileak egindakoa.
- Kontuen Balantzea, 2021eko abenduaren 31n.
- Udalbatza osoari egiten zaion ebazpen-proposamena, jarraian jasotzen dena.

## II. – PROPOSAMENA.

Erabaki-proposamenaren xedapen-zatian honako erabaki hauek biltzen dira:

*“LEHENA: Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 9/2017 Legearen 32. Artikuluan ezarritako baldintzak betetze aldera, Tolosaldea Garatzen S.A. ....ko udalaren Baliabide propio izendatzea, izendapen erabakiarekin bat datozen eskualdeko beste udalekin batera.*

*BIGARRENA: Udalak egingo dizkion mandatuen araubidea erakundearen xede diren jardueretara mugatuko da.*

*HIRUGARRENA: Izendapen hau, gainerako udalek egingo dutenarekin batera, Tolosaldea Garatzen S.A. ren estatutuetan jaso dadin onartzea. Estatutuek honako edukia jaso beharko dute:*

*A) Baliabide propio izaera eskualdeko zein udaletan ematen den.*

*B) Mandatuen araubide juridikoa.*

*C) Erakundeak ezin izango duela udalaren lizitazio publikoetan parte hartu, baldin eta ez bada hutsak deklaritzen direnean.*



- Informazio publikoa eta interesatuen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitezzen.
- Aurkezturiko alegazioak ebatzi eta Ordenantzaren behin betiko testua onartzea, udalbatza plenoari dagokiona.
- Informazio publikoko epea iragan eta inolako erreklamaziorik ez balitz aurkeztuko, Ordenantza behin betikotzat onartua emango da.

## 5.- Organo eskuduna

Goian aipatu den moduan, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Ordenantzen hasierako onespena udalbatza plenoaren eskumena da.

Bestalde, Berdintasun teknikariak bere txostenean egindako proposamenak txertatu dira. Halaber, Txosten juridikoak eta Kontuhartzaitzaren fiskalizazio txostenetan jasotako proposamenak txertatu dira ordenantzaren testuan.

Aurreko guztia aintzat harturik, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2022ko ekainaren 2ean egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Jose Mari Villanueva Telleria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Ander Figuerido Zubiria eta Kristina Pelaez Errazkin.

Aho batez onartu dute.

Beraz, ahobatez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**LEHENA.-** Tolosako udalerrian jenderik gabeko etxebitzak eraberritzeko dirulaguntzen bidez alokairu soziala bultzatzeko udal Ordenantza hasieraz onartzea.

**BIGARRENA.-** Ordenantza hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.



**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

**LAUGARRENA.-**Xedatzea epe horretan ez badago alegaziorik behin betiko onartuta dagoela ulertuko dela.

**TOLOSAKO UDALERRIAN JENDERIK  
GABEKO ETXEBIZITZAK  
ERABERRITZEKO DIRULAGUNTZEN  
BIDEZ ALOKAIRU SOZIALA BULTZATZEKO  
ORDENANTZA ARAUTZAILEA**

**ORDENANZA REGULADORA PARA EL  
FOMENTO DEL ALQUILER SOCIAL A  
TRAVÉS DEL PROGRAMA DE AYUDAS  
PARA LA REFORMA DE VIVIENDAS  
DESHABITADAS EN EL MUNICIPIO  
DE TOLOSA**

**ARRAZOIEN AZALPENA**

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

Tolosako Udalak udalerrian jenderik gabeko etxebizitzak alokairu soziala bultzatu nahi du egitasmo honen bitartez.

El Ayuntamiento de Tolosa, a través de este programa de ayudas quiere impulsar el alquiler social de las viviendas deshabitadas del municipio.

Horretarako Eusko Jurlaritzako Bizigune eta Asap programak osatu nahi ditu; izan ere, normalean etxebizitzak ez alokatzeko ondorengo arrazoi hauetako bat edo gehiago ematen dira:

Para ello, quiere complementar los programas Asap y Bizigune del Gobierno Vasco, dado que, normalmente, los motivos para no querer alquilar las viviendas suele ser uno o varios de los siguientes:

— Etxebizitza horiek alokatzeko borondatea izan bai, baina etxebizitza horiek gutxienez baldintza batzuk bete ahal izateko obrak egin behar dira eta gastu horri aurre egiteko zailtasunak dituzte jabeek.

— Aunque existe voluntad de alquilar las viviendas, hay dificultades para hacer frente al gasto que supone ejecutar las obras necesarias para que puedan cumplir unas mínimas condiciones.

— Etxe jabearen beldurra kontratua amaitzean zein egoeratan itzuliko ote zaion etxebizitza, errenta kobratuko ote duen, ..., nahiz eta jadanik Eusko Jurlaritzak martxan dituen programekin beldur hori desagertuta edo behintzat

— El temor de las personas propietarias de las viviendas sobre el estado en que quedará ésta al finalizar el alquiler, si cobrará la renta... Si bien, con los programas implantados por el Gobierno Vasco, estas reticencias deberían haber



asko mugatuta egon beharko lukeen.

Beraz, Tolosako Udalak, zehazki honako helburuak lortu nahi ditu programa honekin:

- Oinarrizkoa den etxebizitza eskubidea bermatzen lagundu.
- Jenderik gabeko etxebizitzaren alokairu soziala bultzatu.
- Etxebizitzaren eraberritzea bultzatu eta herriko ekonomia suspertu.

Horretarako hainbat diru-laguntza eman nahi die jenderik gabeko etxebizitzaren jabeei, azken horiek beren jabetzakoak diren higiezinak alokatzen jarri ahal ditzaten.

Programa honek honako izen hau edukiko du: Tolosan alokairu soziala bultzatzeko laguntzen programa eta oinarri hauen bitartez arautuko da.

## I XEDEA

### **1. artikulua. Diruz lagundu daitekeen xedea eta jarduketa.**

Tolosan alokairu soziala bultzatzeko programa arautzea da oinarri hauen helburua. Zehazkiago, Alokabideko teknikariek etxebizitza Bizigune programan sartzeko ezartzen dituzten jabetzaren konturako obrak egiteko laguntza ekonomikoak dira.

### **2. artikulua. Onuradunak.**

Laguntzaren onuraduntzat joko dira pertsona fisiko edo juridikoak, pribatuak

desaparecido o al menos disminuido en gran medida.

Así pues, el Ayuntamiento de Tolosa con este programa quiere lograr concretamente los siguientes objetivos:

- Contribuir a garantizar el derecho básico a la vivienda.
- Impulsar el alquiler social de las viviendas deshabitadas.
- Impulsar la renovación de la viviendas y activar la economía local.

Para ello, desea ofrecer a las propietarias y propietarios de viviendas deshabitadas ciertas ayudas para ejecución de obras, para que puedan poner sus viviendas en alquiler.

El programa se denominará: Programa de ayudas para impulsar el alquiler social en Tolosa, y estará regulado por las siguientes bases.

## I.OBJETO

### **Artículo 1. Objeto y actuación subvencionable.**

Constituye objeto de las presentes Bases regular el programa de ayudas para impulsar el alquiler social en Tolosa. Más concretamente, se trata de unas ayudas económicas que tienen por objeto la ejecución de obras a cuenta de la propiedad que el personal técnico de Alokabide establezca para la inclusión de la vivienda en el programa Bizigune.

### **Artículo 2. Personas beneficiarias.**

Se considerará beneficiaria de la ayuda, a las personas físicas o jurídicas,



edo publikoak, ondasun-erkidegoak edo beste edozein unitate ekonomiko edo ondare bereizi, nortasun juridikorik izan ez arren, edo berariaz onura publikokotzat jotako irabazi-asmorik gabeko erakundea izan arren, etxebizitza erabiltzeko eta aprobetxatzeko legitimatzen dituen eskubide errealean edo beste edozein eskubideren jabe edo titular badira, eta Tolosan dagoen etxebizitza bat alokairu-kontratu bat sinatzen badute.

### **3. artikulua. Baldintzak.**

Laguntza programa honetan parte hartzeko honako baldintza hauek bete beharko dira:

— Alokatu nahi den etxebizitza Tolosako udalerrian kokatuta egotea.

— Etxebizitzaren jabea egunean egotea Tolosako udalarekin, ogasunarekin eta gizarte segurantzarekin dituen betebeharretan.

— Etxebizitza Bizigune programan sartzea.

— Alokabiren txosten teknikoan ezarritako eta jabetzaren konturako obrak egitea.

— Bizigune egitasmoan sartzen diren etxebizitzek eta haien jabeek une bakoitzean indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

— Eusko Jaurlaritzak etxebizitza birgaitzeko eta Bizigune programaren bidez eskuragarri jartzeko obra partikularretarako diru-laguntzen lerro bat badu, ezinbestekoa izango da hura eskatzea.

privadas o públicas, comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica o patrimonio separado, aunque carezca de personalidad jurídica, o entidad sin ánimo de lucro expresamente declarada de utilidad pública, que ostenten la condición de propietarias, usufructuarias, o titulares de derechos reales o cualquier otro derecho que les legitime al uso y aprovechamiento de la vivienda y que firmen un contrato de alquiler de una vivienda situada en Tolosa.

### **Artículo 3 Requisitos.**

Para participar en este programa de ayudas se deberán cumplir los siguientes requisitos:

— La vivienda que se desee alquilar estará situada en Tolosa.

— La propiedad de la vivienda deberá estar al corriente en sus obligaciones respecto al ayuntamiento de Tolosa, Hacienda y Seguridad Social.

— Incluir la vivienda en el programa Bizigune.

— Ejecutar las obras establecidas en el informe técnico de Alokabide y que sean a cuenta de la propiedad.

— Las viviendas y propietarios/as que se integren en Bizigune deberán cumplir los requisitos establecidos en cada momento por la normativa vigente.

— En caso de existir una línea de subvención a obras particulares por parte del Gobierno Vasco para rehabilitar la vivienda y su puesta a disposición a través del programa Bizigune, será





#### **4. artikulua. Batzertzeak**

Ezin izango da diruz lagundu Alokabidek jabeari eskatzen ez dion obrarik.

requisito solicitar la misma.

#### **Artículo 4. Exclusiones.**

No será subvencionable ninguna obra que no sea solicitada a la propiedad por Alokabide.

### **II ESKAERAK**

### **II SOLICITUDES**

#### **5. artikulua. Eskabideak aurkeztea.**

Laguntza hauek jaso nahi dituzten pertsonak, Tolosako UDATEn (Plaza Zaharra 6A, 20400 Tolosa) eta Udaleko web orrian eskuragarri jarriko den eskabide eredu ofiziala aurkeztu beharko dute.

#### **Artículo 5. Presentación de solicitudes.**

La personas que deseen optar a estas ayudas deberán presentar una solicitud cumplimentada de acuerdo con el modelo oficial que se pondrá a disposición en la pagina web del Ayuntamiento y en UDATE (Plaza Zaharra 6A,20400 Tolosa) en la forma establecida en la convocatoria.

Erakunde edo pertsona juridikoen kasuan, Tolosako Udalaren erregistro elektronikoa aurkeztu beharko dira nahitaez, baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1 artikuluan adierazitako gainerako erregistro elektronikotan ere, eta aurrez aurreko erregistroa pertsona fisikoentzat bakarrik onartuko da.

En el caso de entidades o personas jurídicas, deberán presentarse obligatoriamente en el registro electrónico del Ayuntamiento de Tolosa, así como en el resto de registros electrónicos a que se refiere el artículo 2.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, admitiéndose el registro presencial únicamente para personas físicas.

Hauetz gainera, pertsona fisikoak beste modu hauetan ere aurkeztu ahal izango dira:

Además, las personas físicas podrán presentarse:

- Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen den moduan.
- Espainiaren ordezkaritza diplomatikoetan edo bulego kontsularretan, bulego kontsularretan edo Espainiak atzerrian dituen ordezkaritza diplomatikoetan.
- En las Oficinas de Correos, en la forma que reglamentariamente se establezca.
- En las misiones diplomáticas u oficinas consulares de España, en las oficinas consulares o en las representaciones diplomáticas de España en el extranjero.



- Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.
- Indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein tokitan.”
- Oficinas de asistencia en materia de registros.
- En cualquier otro lugar establecido en las disposiciones vigentes.

### 5.1. Dokumentazioa:

#### Dokumentuen kontsulta eta elkarreragingarritasuna.

39/2015 Legearen 28.artikuluan, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan eta 38/ 2003 Legearen 14. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Tolosako Udalak zuzenean kontsultatuko ditu bere datu baseetan eta, interesdunak horren aurka egiten ez badu, NISAE elkarreragingarritasun nodoaren bidez Gipuzkoako Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzako Diruzaintzan, laguntza lortzeko baldintzak betetzen diren edo ez egiaztatzeko behar dituen datuak eta, bereziki, honako hauek: Foru Ogasunaren zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean izatea, diru-sarreraren egiaztatzea, bitzita laborala eta beste batzuk.

Laguntza jaso ahal izateko, jabetzak ondorengo dokumentazioa aurrekztu beharko du:

1. Eskabide-orria, behar bezala beteta eta sinatuta
2. Etxebizitzaren jabe den pertsona fisiko edo juridikoaren NANaren, bizileku-txartelaren edo IFKren fotokopia.
3. Alokabiren txosten teknikoa, gutxienez egin behar diren obrak adieraziko dituen.
4. Etxebizitza Bizigune programak irauten duen epe osoan irauteko konpromisoa azaltzen duen dokumentua.

### 5.1. Documentación

#### Consulta de documentos e interoperabilidad.

De acuerdo con el artículo 28 de la Ley 39/2015, el artículo 6.1 del Reglamento (UE) 2016/679 y el artículo 14 de la Ley 38/2003, el Ayuntamiento de Tolosa consultará directamente en las bases de datos del mismo Ayuntamiento y, salvo que la persona interesada se opusiera a ello, a través del nodo de interoperabilidad NISAE en Hacienda Foral de Gipuzkoa y en la TGSS, la información necesaria para determinar el cumplimiento de las condiciones y requisitos para acceder a la ayuda, y en particular los siguientes datos: estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias en la Hacienda Foral y frente a la Seguridad Social, acreditación de ingresos, vida laboral y otros.

Para poder obtener esta ayuda, la propiedad deberá presentar la siguiente documentación:

1. Impreso de solicitud debidamente cumplimentado y firmado.
2. Fotocopia del DNI, tarjeta de residencia o CIF de la persona física o jurídica propietaria de la vivienda.
3. Informe técnico de Alokabide, en el que se señalará las obras que como mínimo se han de realizar.
4. Documento de «Compromiso de incorporación de vivienda en el programa Bizigune durante todo el plazo de duración del programa Bizigune».



5. Burutu behar diren obren aurrekontuak. Diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitatek ez badago, edo gastua diru laguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, diru-laguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, espresuki justifikatu beharko dira, memoria baten bidez, erabili diren irizpideak.

Gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak aurkeztu ez badira edo aukeratu bada, behar bezala arrazoitu gabe, proposamen ekonomikorik onena ez baizik besteren bat, organo emaileak eskatu ahal izango du ondasun edo zerbitzuaren peritutasazio bat egin dadila, eta sortzen diren gastuak pertsona onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan, diru-laguntza kalkulatu da erreferentziatzat harturik bi balioetan txikiena dena: pertsona

5. Presupuestos de las obras a ejecutar, con precios unitarios y globales.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la legislación de contratos públicos para el contrato menor, la persona beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiere realizado con anterioridad a la subvención, extremos que deberán justificarse fehacientemente.

Las ofertas presentadas deberán aportarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de subvención. Se deberán justificar expresamente en una memoria los criterios empleados para la selección de la oferta cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

En caso de que no se aportaran como mínimo tres ofertas de distintos proveedores o de que la elección hubiera recaído, sin adecuada justificación, en una que no fuera la más ventajosa económicamente, el órgano concedente podrá recabar una tasación pericial del bien o servicio, siendo de cuenta de la persona beneficiaria los gastos que se ocasionen. En tal caso, la



onuradunarena edo tasazioaren ondorioz ateratakoa.

### **5.2. Eskaerak egiteko epea.:**

Eskaerak urteko deialdian ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko dira.

## **III. DIRULAGUNTZA EMATEA.**

### **6. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa.**

Etxebizitza birgaitzeko diru-laguntza obren kostuaren % 50 izango da (BEZa eta, oro har, edozein zerga ezin izango da diruz lagundu). Diru-laguntza 8.000 €-koa izango da gehienez Tolosako hirigune historikoan dauden etxebizitzetarako, eta 4.000 €-koa, berriz, hirigunetik kanpo daudenetarako.

### **7. artikulua. Laguntzak ematea.**

Tolosako Udalak, programa honen barruan laguntzak emateko, eta indarrean dirauen bitartean, urtero kopuru jakin bat gordeko du udal aurrekontuan.

Eskabideak aurkezteko hurrenkeraren arabera emango dira laguntzak, aurrekontuan aurreikusitako zenbatekoa agortu arte. Eskabidea aurkeztu dela ulertuko da beharrezko dokumentazio guztiarekin batera aurkezten denean.

Eskabideak laguntza jasotzeko baldintzak betetzen baditu, baina ekitaldi horretako aurrekontua agortuta badago, eskaera horrek lehentasuna izango du hurrengo urteko aurrekontuan aurreikusitako zenbatekotik finantzaketa lortzeko, betiere eskaeren hurrenkeraren arabera.

subvención se calculará tomando como referencia el menor de los dos valores: el declarado por la persona beneficiaria o el resultante de la tasación.

### **5.2.Plazo de solicitud:**

Las solicitudes deberán presentarse dentro del plazo establecido en la convocatoria anual.

## **III. CONCESIÓN DE LA SUBVENCIÓN**

### **Artículo 6. Cuantía de la subvención.**

La subvención para la rehabilitación de la vivienda será del 50 % del coste de las obras (no será subvencionable el IVA y, en general, cualquier tributo). La subvención máxima será de 8.000 € a las viviendas situadas en el Casco Histórico de Tolosa y 4.000 € de subvención máxima a las situadas fuera del citado Casco.

### **Artículo 7. Concesión de ayudas**

El Ayuntamiento de Tolosa, para la concesión de ayudas dentro de este programa, y en tanto siga vigente el mismo, consignará anualmente cierta cantidad en el presupuesto municipal.

Las ayudas se concederán por orden de presentación de solicitudes, hasta agotar la cantidad prevista en el presupuesto. Se entenderá que se ha presentado la solicitud cuando se presente la misma acompañada de toda la documentación precisa.

En caso de que la solicitud cumpla los requisitos para obtener ayuda pero el presupuesto de dicho ejercicio esté ya agotado, dicha solicitud tendrá prioridad para obtener financiación desde la cantidad prevista en el presupuesto del año siguiente, siempre de conformidad



### **8. artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa**

Horiek jasotakoan, Tolosako udalak txosten teknikoa egingo du eta bertan gutxienez honako hauek zehaztuko ditu:

- Bulego teknikoak nahitaezko txosten bat egingo du. Txosten horretan, obren guztizko prezioa kalkulatu da, eta jabeak gehienez lor dezakeen dirulaguntza ezarriko da.

Txosten horretan oinarrituta dagokion dirulaguntza ordaintzeko proposamena egingo du udal teknikariak, eta Antolakuntza batzordean aztertu eta ebaluatuko dira, eta, irizpen bidez, ebazpen-proposamen bat egingo du Zinegotzi Delgatuak erabaki dezan. Zinegotzi Delgatuak onartu ondoren, eskatzaileari jakinaraziko zaio. Une horretan dirua erreserbatu egingo da.

Jakinarazpen horretan, halaber, adieraziko zaio obra-baimena eskatu behar duela hiru hilabeteko epean eta, Udalak obra-baimena eman ondoren, obra-baimenean zehaztutako epean burutu beharko dituela.

Epe horietakoren bat errespetatuko ez balitz, bere alde egindako diru-laguntza-erreserba galdu egingo du etxebizitzaren jabeak, entzunaldiko epea emango zaiolarik.

Obrak burutakoan, jabeak Alokabideri eta udalari jakinaraziko dio obrak burutu dituela. Eskatutako obrak egin baditu jabeak, usufuktu-lagapeneko kontratua sinatuko dute Alokabideren eta jabearen

con el orden de solicitudes.

### **Artículo 8 Abono de la subvención.**

Una vez recibida la documentación, el Ayuntamiento de Tolosa elaborará un informe técnico, en el que indicará como mínimo los siguientes puntos:

— La oficina técnica realizará un informe preceptivo en base a los cuales se calculará el precio total de las obras y se establecerá la subvención que como máximo podrá obtener la persona beneficiaria.

En base a ese informe, la técnico municipal efectuará propuesta de pago de la subvención correspondiente, y serán estudiadas y evaluadas en la Comisión de Organización y mediante dictamen realizará una propuesta de resolución para que Concejal delegado resuelva sobre la misma. Tras su aprobación por el concejal delegado, se le comunicará a la persona solicitante. En ese momento se reservará la cantidad económica.

En dicha comunicación se le informará también de que ha de solicitar licencia de obra en un plazo de tres meses y que, tras la concesión de la misma por parte del Ayuntamiento, deberá ejecutar la obra en el plazo establecido en dicha licencia.

Si no se respetara alguno de los plazos citados, la propietaria de la vivienda perderá la reserva de subvención realizada a su favor, concediéndole plazo de audiencia.

Una vez finalizadas las obras, la persona titular de la vivienda comunicará a Alokabide y al Ayuntamiento que las ha ejecutado. Si ha realizado las obras requeridas suscribirá con Alokabide un contrato de «cesión de



artean.

Jarraian, jabeak Tolosako Udalean eskatuko du onartutako diru-laguntza ordaintzea. Horretarako, udalak prestatutako inprimakian egingo du jabeak eskaera, eta horrekin batera honako hauek aurkeztuko ditu:

- Alokabiderekin sinatutako usufruktu-kontratua.
- Obren fakturen kopia.

Tolosako udaleko zerbitzu teknikoek, dokumentazio hori aztertu ondoren, eta obrak ikuskatuz gero, beharrezkoa baderitza, txosten teknikoa egingo dute, eta bertan zehaztuko dute zenbatekoa den gehienez ordaindu beharreko diru-laguntza. Txosten horretan oinarrituta dagokion diru-laguntza ordaintzeko proposamena egingo dute, alkateak edo horrek delegatutako organoak erabaki dezan eta alkateak onartu ondoren eskatzaileari jakinaraziko zaio.

#### **9. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.**

Ezinbesteko baldintza izango da Bizigune alokairu-programan jarraitzea, berau arautzen duen legeriak xedaturiko epe osoan. Bestelako kasuan, eta aipatu programa arautzen duen arautegian onarturiko salbuespenezko egoera ezean, onuradunak itzuli beharko du jasotako laguntza.

#### **10. artikulua. Beste diru-laguntzekin bateragarritasuna.**

Programa honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira beraien artean, oinarri hauetan ez bada espresuki kontrakoa adierazten, baita etxebizitzan

usufructo».

A continuación, la persona titular de la vivienda solicitará en el Ayuntamiento de Tolosa el abono de la subvención aprobada. Para ello, deberá efectuar una solicitud, en el impreso municipal elaborado al efecto, junto con la que deberá presentar los siguientes documentos:

- Contrato de usufructo suscrito con Alokabide.
- Copia de las facturas de las obras.

Los servicios técnicos del Ayuntamiento de Tolosa, tras analizar la documentación, y tras la inspección de las obras si considera necesario, elaborará un informe técnico en el que indicará cuál es la cantidad máxima de subvención que se le ha de abonar. En base a dicho informe propondrá el abono de la correspondiente subvención, a fin de que el Concejal Delegado resuelva sobre la misma y una vez aceptado por alcaldía, le será comunicada a la persona solicitante.

#### **Artículo 9 Obligaciones de la propiedad beneficiaria**

Será condición imprescindible continuar en el programa Bizigune, durante todo el plazo establecido por la Ley que regula el mismo. En otro caso, y de no ser aceptada como una situación excepcional por la normativa que regula el citado programa, el beneficiario deberá devolver la ayuda percibida.

#### **Artículo 10 Concurrencia con otras ayudas.**

Las ayudas económicas contempladas en este programa son compatibles con las ayudas económicas o préstamos que otras administraciones pudieran





alokairua sustatzeko beste administrazio batzuek eman ditzaketen diru-laguntza edota maileguekin ere.

Emandako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua. Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie diru-laguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako diru-laguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Tolosako udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren Zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako diru-laguntzaren mugaraino

conceder para impulsar el alquiler de viviendas.

En ningún caso el importe de la subvención concedida podrá superar, en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, el coste de los proyectos o actividades subvencionadas. Para la comprobación de esta limitación, se habrá de justificar la totalidad del gasto realizado y la cuenta justificativa habrá de contener una relación detallada de los otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación de los importes y su procedencia.

Si se produjera un exceso de financiación respecto del coste del proyecto o actividad, la beneficiaria deberá reintegrarlo, junto con los intereses de demora, uniendo las cartas de pago a la correspondiente justificación.

El reintegro del exceso se hará a favor de las entidades concedentes en proporción a las subvenciones concedidas por cada una de ellas. No obstante, cuando sea el Ayuntamiento de Tolosa el que advierta el exceso de financiación, exigirá el reintegro por el importe total del





exceso, hasta el límite de la subvención otorgada por el mismo

#### **IV. DIRULAGUNTZAREN KONTROLA**

##### **11. Kontrola.**

Dirulaguntzen onuradunek Tolosako udalak eskaturiko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, beti ere Oinarri hauetan xedaturiko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko helburuarekin.

##### **12. artikulua. Aldaketa.**

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek, eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete.

##### **13. artikulua. Galera.**

Diru-laguntza berrikusteko eta, hala egokituz gero, ezeztatu eta jasotako diru-laguntza itzultzeko arrazoiak izango dira:

1. Diru-laguntza beharrezko baldintzak bete gabe jaso izana.
2. Diru-laguntzaren helburua, osorik edo zati batean, ez betetzea.
3. Diru-laguntzari eman zaion erabilera zurrizko derrigortasuna ez betetzea edo behar den bezala ez betetzea.
4. Finantzen kontrol- eta frogatze-jarduerak oztopatzea, ezetza ematea, desenkusatzea edo erresistentzia jartzea; agiriak kontserbatzeko eta kontabilitate eta erregistratze aldetik dituzten betebeharrak ez betetzea; horien ondorioz emandako diru-laguntza zertan erabili den ziurtatzea oztopatzen bada, helburua

#### **IV. CONTROL DE LA SUBVENCIÓN**

##### **Artículo 11. Control de la subvención**

Las personas beneficiarias de las subvenciones deberán presentar la documentación solicitada por el ayuntamiento de Tolosa, siempre con la finalidad de comprobar que las condiciones establecidas en estas bases se cumplen.

##### **Artículo 12. Modificación de la subvención.**

La alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, las ayudas recibidas en concurrencia de otras entidades públicas o privadas pueden suponer la modificación de la resolución de concesión.

##### **Artículo 13. Pérdida de la subvención.**

Serán motivos para la revocación y consecuente reintegro de la subvención concedida, los siguientes:

1. Haber obtenido la subvención sin cumplir los requisitos precisos.
2. No cumplir el objeto de la subvención en su totalidad o en parte.
3. Incumplimiento de la obligación de justificación o justificación insuficiente del destino de la subvención recibida.
4. Impedir las actividades de control financiero o de comprobación, o negarse, excusarse o poner resistencia a ellas; no cumplir las obligaciones en cuanto a conservación de documentos y a contabilidad y registro; impedir, como consecuencia de lo anterior, llevar a cabo las acciones de comprobación del



betetzen ez bada edo helburu berarentzako bestelako diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabideak baldin badaude

5. Araudi honetan diru-laguntzaren onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea.

Itzuli beharreko diru-kopuruak eskubide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira.

## V. APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

### **14. Artikulua. Aplikatu beharreko araudia.**

Laguntza horien emakida eta onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa oinarri hauen eta laguntza ematen den unean indarrean dagoen gainerako araudiaren arabera arautuko dira.

Oinarri hauetan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dute diru-laguntza:

- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 28/2003 Lege Orokorra.
- Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Tolosako Udalaren diru-laguntzak emateko ordenantza orokorra.

## VI. ERREKURTSOAK

### **15. artikulua.**

Oinarri hauek zuzenean aurkaratu ahal izango dira bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira epeak.

uso dado a las subvenciones recibidas, del cumplimiento del objetivo y si se han recibido otras subvenciones o disponen de otros ingresos o recursos para el mismo objetivo.

5. Incumplir las personas beneficiarias de las subvenciones las obligaciones establecidas en la presente normativa.

Los importes a reintegrar se considerarán como ingreso de derecho público.

## V NORMATIVA APLICABLE

### **Artículo 14. Normativa aplicable.**

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre la persona beneficiaria y la entidad otorgante se *regirá por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión.*

Además de lo establecido en estas bases, esta subvención será regulada por:

- *Ley General de Subvenciones* 28/2003 de 17 de noviembre.
- Reglamento General de Subvenciones aprobado por Real Decreto 887/2006 de 21 de julio.
- Ordenanza general de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa.

## VI. RECURSOS

### **Artículo 15.**

Las presentes bases podrán impugnarlas directamente ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses. El plazo se contará a partir del día siguiente al de la publicación de las presentes bases.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:



**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Qinquilla

Beraz, Udalbatzak aho batez hasierako onarpena eman dio Tolosako udalerriko jenderik gabeko etxebizitzak eraberritzeko dirulaguntzen bidez alokairu soziala bultzatzea arautuko duen ordenantzari.

**10.HASIERAZ ONARTZEA TOLOSAKO LANDA AUZOETAKO BASERRI BIDEETAN ELURRA KENTZEKO ZERBITZUA AUZOLANAREN BITARTEZ EMATEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA.**

**Lurralde Batzorde Informatiboaren 2022ko ekainaren 21eko irizpena**

**1- AURREKARIAK**

<b>Dokumentua</b>	<b>Data/Zk</b>	<b>Oharrak</b>
Ordenantzaren hasierako onarpena	2019/12/18	
Behin betiko Ordenantza GAOn publikatzea	2020/12/04	
Aurretzako kontsulta. Iragarkia udaletxeko taulan	2022/05/17	
Aurretzako kontsulta. Iragarkia web orrian	2022/05/18	
Informazio publikoaren epearen amaiera	2022/06/10	
Hirigintzako AOTaren txosten juridikoa	2022/06/10	
Informazio publikoari buruzko ziurtagiria	2022/06/13	Ez da alegaziorik egon
Ordenantza proposamena	2022/06/13	
Berdintasunari buruzko txostena	2022/06/13	Aldekoa

ESKUE38dfb9a-b7d3-494c-bc8c-9db083d115e13



Hizkuntza baldintzei buruzko txostena	2022/06/13	Aldekoa, gomendioekin
Idazkaritzaren txosten juridikoa	2022/06/15	Aldekoa
Kontuhartzaitzako fiskalizazio txostena	2022/06/16	Aldekoa, gomendioekin

## 2.- INGURUMEN ETA LANDA EREMUKO TEKNIKARIAREN AZTERKETA TEKNIKOA

2022/06/14an Ingurumen eta Landa eremuko teknikariak txostena egin zuen. Bertan honako hau adierazten da:

### «2.1- AURREKARIAK

*Azken urteetan landa eremuan bide publikoetako elurra kentzeko zerbitzua baserritarrek egin dute auzolanean. Baserritar bakoitzarekin urtero hitzarmen bat sinatzen zen, zerbitzuaren baldintzak eta kalte-ordainak zehazten zituena.*

*Hitzarmen horiek, urtero, dekretu bakar batez onartzen ziren. 2017ko urterako hitzarmenak 2016/2313 Alkate Dekretuz onartu ziren. Azkeneko hitzarmenak 2018ko urterako egin ziren eta horiek 2017/2316 Alkate Dekretuz onartu ziren.*

*2019 eta 2020 urteetan lan horiek erregularizatzeko asmoz, ordenantza bat onartu eta publikatu zen. Ordenantzari hasierako onespena 2019ko abenduaren 18an eman zitzaion. Behin betiko ordenantza 2020ko abenduaren 4an argitaratu zen GAOn.*

*Denbora horretan, ikusi ahal izan da ordenantza honetan auzolanean parte hartzeko ezartzen den baldintzetako bat ez dutela betetzen prest dauden baserritar gehienek. Baldintza hori Gizarte Segurantzako nekazaritza erregimenean alta emanda egoteko eskakizuna da. Zerbitzua eman dezaketen eta prest dauden traktore-zale gehienak nekazari edo abeltzainak dira, baina ez lanaldi osoan. Lehen sektoretik lortutako irabaziak bere errenta aitopenean deklaratzeko dituzte, baina beste sektore batzuetan lan egiten dutenez, ez dute Gizarte Segurantzako nekazaritza erregimenean alta ematen.*

*Hori dela eta, ordenantza aldatzea beharrezkoa da, zerbitzuan parte hartzeko aukerak zabaltzeko eta zerbitzua bermatu ahal izateko.*

*2022/05/18an, jendaurrean jarri zen aldaketa horri dagokion aurretiazko kontsultarako dokumentazioa Udaleko webgunean eta iragarki taulan.*

*2022/06/06an jendaurreko epea amaitu zen gaiari buruzko iruzkinik jaso gabe.*

*2022/06/14an, behean izenpetzen duen teknikariak txostena egin zuen:*



## **2.2 Auzolanean eman beharreko zerbitzuaren deskribapena eta ordainketaren kopuruak**

Auzolanaren xedea Tolosako udalerriko landa izaerako bideak eta errepideak garbitzea izango da, elurra egiten duenean, herritar eta ibilgailuen zirkulazioa ahalbidetzeko, eta, hala, herritarrek behar duten oinarrizko garraioa (lantegietara, eskoletara, etab.) bermatuko da. Tolosan garbitzeko eremuak 8 dira. Aldaba, Aldabatxiki, Bedaio, Urkizu, Monteskué, Santa Lutzia, San Blas eta Usabal.

Egin beharreko lanen ezaugarriak Auzolana arautzen duen Ordenantzaren 4. artikuluan zehazten dira eta garbitu beharreko bideen informazioa, kokapena eta ezaugarriak urteroko deialdian zehaztuko dira.

Zerbitzuak sortzen dituen gastuengatik (makinaria, gasolioa, gastu orokorrak) kopuru bat ordaintzen dio Tolosako Udalak auzolana egiten duenari. Kopuru horrek bi atal izango ditu eta urtero deialdiarekin batera eguneratu ahal izango da:

- Aldakorra, zerbitzuan emandako orduen arabera kalkulatu da.
- Finkoa, zerbitzua emateko prestasunagatik emango da eta kontzeptu hauek biltzen ditu:
  - Kopuru finko horrek barneratzen ditu Udalarenak diren pala eta tolbaren zaintza eta mantentze-lanak, garbitzea eta koipeztatzea. Udalak banatutako gatzaren zaintza egokia ere egin beharko da, gatzak hezetasunik hartu ez dezan.
  - Kopuru finkoak zerbitzua ematerakoan traktoreak jasan ditzakeen kalteak konpentsatzeko ere balioko du.

2021-2022 denboraldirako kopuru finkoa izan da 503 euro urteko, eta traktorearen erabilpenarengatik, berriz, 71,5 euro orduko.

Beraz, kontuan hartu behar da traktore-zale bakoitzari urtean 503 €-ko ordainketa minimoa egingo zaiola, zati finkoari dagokiona, eta oso zaila izango dela urtean 3.000 €-ko ordainketa gainditzea. Azken hiru urteotan ez du ia elurrik egin aipatutako auzoetan eta kontuan hartuta finkatutako orduko prezioa, ez da aurreikusten, elur asko egiten duen urtea izan arren, urteko 3.000 €-ko kopuru hori gainditzea posible denik.

## **2.3 Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea ez da beharrezkoa**

Ordenantzaren 3. artikuluan, Auzolanean parte hartuko dutenak hautatzeko jardunbidean, baldintza hau ezartzen da:



*“Gizarte Segurantzaren, nekazaritza jardueretan alta emanda egotea edo gutxienez autonomo bezala alta emanda egotea, fakturak Udalari igorri ahal izateko egindako lanengatik”.*

*Baldintza hori ezartzeko arrazoia traktore-zaleak fakturak igorri ahal izatea izan zen. Hala ere, GFAko Ogasun Sailari kontsulta egin ondoren, ondorioztatu da Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea ez dela nahitaezko baldintza fakturak igorri ahal izateko.*

*GFAko Ogasun Sailak jakinarazi zigunez, beste lanbide batean aritzen diren eta, horretaz gain, jarduera osagarri gisa, lanaldi partzialean aritzen diren nekazari-abeltzainek ez dute autonomo bezala Gizarte Segurantzaren alta eman beharrik. Baina derrigortuta daude nekazaritza lortutako irabaziak PFEZn (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) deklaratzeko, 036 inprimakia betez.*

*Kasu honetan ere, elurra kentzeko zerbitzuarengatik jasotzen dituzten ordainketak PFEZn deklaratu beharko dituzte.*

*Gai honi buruzko jurisprudentzia zabala da, eta 1997ko urriaren 29ko sententzia batean du oinarria. Sententzia honetan adierazten da Langile Autonomoen Erregimen Berezian alta ematea beharrezkoa den edo ez ebazteko kontuan hartu behar dela egindako jarduera ohikoa den ala ez. Egiten den jarduera ohikoa den ala ez baloratzeko orduan, Auzitegi Gorenaren arabera, “ohiko jarduera” kontsideratzen da autonomoaren hileko diru-sarrerek Lanbide-arte Gutzieneko Soldata gainditzen dutenean.*

*Sententzia horretatik eratorritako jurisprudentziak orokorrean finkatzen du, lanaldi edo jarduera nagusia duen langile baten kasuan, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean alta emanda dagoenak ez du Autonomoen Erregimen Berezian alta emateko beharrezkotasunik, baldin eta jarduera osagarri hori ez bada ohiko jarduera.*

*Gaur egun 2022rako gutxieneko soldata 14.000 €-tan dago. Elurra kentzeko zerbitzuarekin ez da aurreikusten inoiz kopuru hau gaindituko denik, beraz, ezin da jarduera hau ohiko jardueratzat jo.*

*Ondorioz, traktore-zaleak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emanda badaude, elurra kentzeko zerbitzua puntuala denez eta jarduera hau ez denez inoiz “ohiko jarduera” izango, ordainketek ez baitute inoiz 14.000 €-ko kopurua gaindituko, ez dute autonomo bezala alta eman beharrik izango fakturak igorri ahal izateko.*

## **2.4- ONDORIOA**

*Hori guztia ikusirik, honako hau proposatzen da:*

*Lehenengoa.- Tolosako landa auzoetako baserri bideetan elurra kentzeko zerbitzua auzolanaren bitartez ematea arautzen duen ordenantza aldatzea, atal hauetan:*

*3. artikuluan, Auzolanean parte hartuko dutenak hautatzeko jardunbidea (2. orrialdea).*



A) Honako hau dio:

*“Gizarte Segurantzari, nekazaritza jardueretan alta emanda egotea edo gutxienez autonomo bezala alta emanda egotea, fakturak udalari igorri ahal izateko egindako lanengatik”.*

Hau esan behar du:

*“Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako beharrezko erregistro edo epigrafeetan alta emanda egotea, egindako lanengatik Udalari fakturak igorri ahal izateko”.*

B) Honako hau dio:

*“Ondoren, auzolana egingo duten kideak aukeratzeko, udalak honako irizpide hauek jarraituko ditu:*

- Baliabide teknikoaren egokitasuna
- Gizarte Segurantzari nekazaritza jardueretan alta emanda egotea.
- Lanaren ezagutza
- Erabilgarritasuna denboraren aldetik.
- Garbitu behar diren bideetara iristeko denbora maximoa”.

Honako hau esan behar du:

*“Ondoren, auzolana egingo duten kideak aukeratzeko, Udalak honako irizpide hauek jarraituko ditu:*

- Baliabide teknikoaren egokitasuna.
- Lanaren ezagutza.
- Erabilgarritasuna denboraren aldetik.
- Garbitu behar diren bideetara iristeko denbora maximoa”.

### **3- AZTERKETA TEKNIKOA. Berdintasuna eta Euskara**

3.1 2022/06/13an **Berdintasun teknikariak** txostena egin zuen. Bertan, honako hau adierazi du:

*“Ordenantza honetako 3. artikulua aztertuta, **uste da ez dela derrigorrezkoa generoaren arabera eraginaren alde aurreko ebaluazioa egitea**. Izan ere, Tolosako Udalarentzat beharrezkoa da ordenantza 3. artikulua edukia aldatzea, zerbitzua modu egokian eman dadin. Eta aurkezten den eguneratzeak ez die modu erabakigarrian eragiten emakumeen eta gizonen egoerari eta/edo herritarren eskubide eta interes legitimoei”.*

3.2 2022/06/13an **Euskara eta Hezkuntzako teknikariak** txostena egin zuen. Bertan, honako hau adierazi du:

*“Ordenantza honen helburua da Tolosako landa auzoetako baserri bideetan elurra kentzeko zerbitzua emateko auzolana arautzea.*





*Bertan arautzen dira zein baldintza bete behar diren lan hori egiteko eta zein izango diren auzolanean parte hartuko dutenen betebeharrak.*

*Tolosako Udala UEMako kide da eta Urrezko BIKAIN Ziurtagiria ere badu, beraz, horrek guztiak betebeharrak batzuk ezartzen dizkio. Bestalde, indarrean du Tolosako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko 2018-2022 plana, eta hauxe dio puntu honetan*

*• 6.2. Herritarrak eta produktua edo zerbitzua: hizkuntzen kudeaketa herritarrekiko harremanen kudeaketan eta produktuen edo zerbitzuen garapenaren kudeaketan integratzea °*

#### *6.2.1. Herritarrak, zerbitzuak edo produktuak eta hornitzaileen kudeaketa*

##### *▪ Zerbitzu enpresak*

*Kontratua sinatu aurretik, euskarazko baldintza agiriak prestatu eta zabalduko dira. Kontratazio guztietan Udalak pleguen bidez, horiek behar diren kasuetan, edota, kontratuan zehaztuta, pleguak behar ez direnetan, argi utziko du kontratatuko den enpresak Udalean euskaraz aritu beharko duela.*

*Zerbitzu enpresei bidalitako agiriak euskaraz bidaliko dira.*

*Zerbitzu enpresa berriekin kontratua sinatzean euskararen baldintza sartuko da. Udalak prestatutako kontratuak euskaraz sinatuko dira, eta, Udalak prestatzen ez dituen kontratuetan, euskarazko bertsioa eskatu eta sinatuko da.*

##### *▪ Hornitzaileak*

*Udala hornitzaileekin harremanetan jartzen denean eta horniketara eskatzeko baldintzak adosten direnean (gonbidapena, aurrekontua...), euskararen baldintza zehaztuko da.*

##### *▪ Kontratazio administratiboak*

*Udalaren eta beraren erakunde autonomiadunen kontratazioetarako pleguetan puntu berezi bat jasoko da eta bertan adieraziko, kasuan kasuko kontratuari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d) artikuluan ezarritako neurriak dagozkion ala ez.*

*Kontratazio gaia den prestazioak zerbitzuaren erabiltzaileekiko edo, oro har, jendearekiko harremanak dakartzanean, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d) artikuluan eta abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 38.1.b) artikuluan ezarritakoari jarraiki, honako neurriak hartuko dira:*

*a. Erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek euskaraz atendituak izateko duten eskubidea errespetatuz eman beharko du prestazioa kontratistak.*

*b. Herritarrentzako inprimakiak, oharrak eta jakinarazpenak euskaraz edo ele bietan ematea bermatu beharko du kontratistak.*

*c. Kontratazio gaia herritarren zuzeneko zerbitzu prestazioa denean edo/eta herritarren adierazpeneko jarduketetan (errotuluak, abisuak...) aipatu hizkuntz baldintza horiek betetzen ez badira edo, pleguetan zehaztutakoaren arabera, prestazioa emateko euskarazko hizkuntz gaitasuna duten nahikoa langile jartzen ez badira, espedientea irekiko da kalte ordainak eskatzeko edo, prestazioaren ezaugarriak kontuan izanda, bete gabeko baldintza funtsezkoa bada, kontratua bertan behera uzteko.*

*Kontuan izan da, era berean, 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratibo normalizatzeari buruzkoa.*



*Hori guztia kontuan hartuz, eta zerbitzu berezi bat dela ikusirik, Euskara eta Hezkuntza Sailak irizpide hauek txertatzeko proposamena egiten du, kontuan izanda zer auzo diren:*

*1.- Kartel edo mezuren bat jarri behar baldin badute, euskaraz edo piktograma bidez egin dezatela. Hartarako laguntzarik behar izanez gero, Euskara eta Hezkuntza Sailera jo dezakete.*

*2.- Kontratatu-edo egingo den jendeak, ahozkoan, euskaraz komunikatzeko gaitasuna izan behar du.*

***Egindako proposamenak aintzat hartuko direlakoan, ordenantza honetan ageri diren baldintzekin ados nagoela adierazten dut“.***

#### **4- AZTERKETA JURIDIKOA**

2022/06/15an Administrazio Orokorreko teknikariak lege-txostena idatzi zuen. Bertan honako hau adierazi du:

##### **“4.1.- Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena**

*Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatu Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen. Zehazki, aldaketa hauek eragin zituen lege berriak:*

- Udal eskumenen sailkapena egin zuen: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak berezi ditu lege berriak.*
- Udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu.*
- Udalen eskumenen egikaritza ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen menpe jarri ditu. Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gai-zerrenda bat osatu zuen, non udalek berriazko eskumenak egikarituko baitzituzten. Gai horien artean, 18.1.d) atalean arautzen da, herritarren eskubide eta betebeharrak xedatzerakoan. Izan ere, aipatu legearen 25.2.d) atalean xedatutakoaren arabera, landa izaerako bideen mantentzea udalaren eskumena da, eta betebeharrak horri aurre egiteko, eragindako herritarren laguntza eskatu ahal izango du udalak, prestazioaren araubide juridikoa arautuz gero.*

*Azkenik, 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 44.1a) artikuluan udalerriko auzotarren betebeharrak arautzerakoan, legez edo udal ordenantzen bidez aurreikusitako prestazio ekonomikoaren eta pertsonalen bitartez, udal eskumenak gauzatzen laguntza ematea xedatzen da.*



Beraz, teknikari honen iritziz, Tolosako udalak badu ahalmena proposatzen den Ordenantza arautzailea onartu eta aplikatzeko, aipatu diren xedapenetan oinarritzen delako.

#### **4.2.- Ordenantza aldaketaren izapidetzea**

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 49. artikuluan xedatzen du ordenantzak onartzeko jardunbidea, honako hauen arabera:

- Hasierako onespena, osoko bilkurari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.
- Informazio publikoa eta interesdunen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez ditzaten.
- Aurkezturiko alegazioak ebatzi eta ordenantzaren behin betiko testua onartzea, udalbatza osoko bilkurari dagokiona.
- Informazio publikoko epean inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada, ordenantza behin betiko onartutzat emango dute.

#### **4.3.- Organo eskuduna**

Goian aipatu den moduan, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, ordenantzen hasierako onespena udalbatzaren osoko bilkuraren eskumena da.

Beraz, Irizpenak forma hau izango luke:

**LEHENA.-** Tolosako Landa auzoetako baserri bideetan elurra kentzeko zerbitzua auzolanaren bitartez ematea arautzen duen ordenantzaren hirugarren artikulua aldatzea era honetan:

3. artikuluan, Auzolanean parte hartuko dutenak hautatzeko jardunbidea.

- Honako hau dio:

“Gizarte Segurantzari, nekazaritza jardueretan alta emanda egotea edo gutxienez autonomo bezala alta emanda egotea, fakturak udalari igorri ahal izateko egindako lanengatik”.

Honako hau esan behar du:

“Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako beharrezko erregistro edo epigrafeetan alta emanda egotea, egindako lanengatik Udalari fakturak igorri ahal izateko”.

- Honako hau dio:

“Ondoren, auzolana egingo duten kideak aukeratzeko, udalak honako irizpide hauek jarraituko ditu:



- *Baliabide teknikoen egokitasuna*
- *Gizarte Segurantzaren nekazaritza jardueretan alta emanda egotea.*
- *Lanaren ezagutza*
- Erabilgarritasuna denboraren aldetik.*
- Garbitu behar diren bideetara iristeko denbora maximoa”.*

*Honako hau esan behar du:*

*“Ondoren, auzolana egingo duten kideak aukeratzeko, udalak honako irizpide hauek jarraituko ditu:*

- *Baliabide teknikoen egokitasuna.*
- *Lanaren ezagutza.*
- *Erabilgarritasuna denboraren aldetik.*
- *Garbitu behar diren bideetara iristeko denbora maximoa”.*

*BIGARRENA.- Ordenantza horren aldaketa eta dagokion espedientearen informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.*

*HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.*

*LAUGARRENA.-Xedatzea epe horretan ez badago alegaziorik behin betiko onartuta dagoela ulertuko dela”.*

## **5.- FISKALIZAZIO TXOSTENA**

2022/06/16an kontuhartzaileak fiskalizazio txostena idatzi zuen. Hona hemen txosten horren azterketa eta ondorioak:

*“TXOSTENA 2022ko ekainaren 16a*

### **OINARRI JURIDIKOAK**

1. 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoa, bere IV TITULUA: KONTUHARTZE-KONTROLA.



2. *Gipuzkoako Foru Aldundiko 32/2018 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena.*

3. *2021/7/29 datako toki erakundearen osoko bilkuraren erabakia, aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidea eta espedienteetan egiaztatu beharreko baldintzak onartzen dituena.*

### **JAKINARAZTEN DUT**

*Ingurumen eta landa eremuko teknikariak proposamen bat aurkeztu du Tolosako landa auzoetako baserri bideetan elurra kentzeko zerbitzua auzolanaren bitartez ematea arautzen duen ordenantzaren aldatzeko.*

*Horren arrazoia da gaur egungo ordenantzak auzolanean parte hartzeko baserriarrei ezartzen zaien baldintzetako bat gehienek ez dutela betetzen. Baldintza hori da Gizarte Segurantzako autonomo erregimenean alta emanda egotearen eskakizuna. Horregatik, baldintza hori kentzea proposatu di.*

*Bere ordeaz, honako hau eskatzea proposatu du:*

*“Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako beharrezko erregistro edo epigrafeetan alta emanda egotea, egindako lanengatik Udalari fakturak igorri ahal izateko”.*

*2021/7/29ko Osoko Bilkuraren erabakiaren arabera, ez dagokio espediente honen aurretiazko fiskalizaziorik.*

### **OHARRA**

*Nire ustez, komenigarria litzateke adieraztea zeintzuk diren Ogasunean eman behar diren altak eta interesdunei eskatzea dagozkien ereduak aurkezteko eskaerarekin batera. Hauek dira eman beharreko altak eta bakoitzaren eredia:*

- 1.- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (840 eredia).*
- 2.- Zentsu aitortpena (036 eredia)”.*

*Fiskalizazio txostenean emandako gomendioa urteroko deialdietan aplikatu da, deialdietan zehaztuko baitira, kasuan kasu, aurkeztu beharreko dokumentuak.*

*Aurrekoa ikusita, eta eskatutako zuzenketak eginda, espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetzeari jarraitu diola uste da. Udalbatzak hasieraz onartu behar du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49. artikuluen arabera.*



**Tolosako Udaleko Lurralde Batzordeak, 2022ko ekainaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan da:**

**Aldeko botoak:** Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa eta Patxi Amantegi Zubiria.

**Abstentzioak:** Andu Martinez de Rituerto, Ander Figuerido eta Aitzol Garzia.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

#### *IRIZPENA*

**LEHENA.- Tolosako landa auzoetako baserri bideetan elurra kentzeko zerbitzua auzolanaren bitartez ematea arautzen duen ordenantzaren hirugarrenengo artikulua aldatzea era honetan:**

3. artikuluan, Auzolanean parte hartuko dutenak hautatzeko jardunbidea.

- Honako hau dio:

*“Gizarte Segurantzaren, nekazaritza jardueretan alta emanda egotea edo gutxienez autonomo bezala alta emanda egotea, fakturak udalari igorri ahal izateko egindako lanengatik”.*

- Honako hau esan behar du:

*“Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako beharrezko erregistro edo epigrafeetan alta emanda egotea, egindako lanengatik Udalari fakturak igorri ahal izateko”.*

-Honako hau dio:

*“Ondoren, auzolana egingo duten kideak aukeratzeko, udalak honako irizpide hauek jarraituko ditu:*

— *Baliabide teknikoen egokitasuna*

— *Gizarte Segurantzaren nekazaritza jardueretan alta emanda egotea.*

— *Lanaren ezagutza*

---*Erabilgarritasuna denboraren aldetik.*



---*Garbitu behar diren bideetara iristeko denbora maximoa*".

-Honako hau esan behar du:

*"Ondoren, auzolana egingo duten kideak aukeratzeko, udalak honako irizpide hauek jarraituko ditu:*

— *Baliabide teknikoen egokitasuna.*

— *Lanaren ezagutza.*

--- *Erabilgarritasuna denboraren aldetik.*

--- *Garbitu behar diren bideetara iristeko denbora maximoa.*

--- *Ahozkoan, euskaraz komunikatzeko gaitasuna*".»

**BIGARRENA.**- Ordenantza horren aldaketa eta dagokion espedientearen informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.

**HIRUGARRENA.**- Erabaki horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

**LAUGARRENA.**- Xedatzea epe horretan ez badago alegaziorik behin betiko onartuta dagoela ulertuko dela.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

Beraz, Udalbatzak aho batez **hasieraz onartu du** Tolosako landa auzoetako baserri bideetan elurra kentzeko zerbitzua auzolanaren bitartez ematea arautzen duen ordenantzaren aldaketa.





**11.HASIERAZ ONARTZEA BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK, SALGAI DAUDEN  
PRODUKTUEN ERAKUSLEKUAK ETA BESTE ELEMENTU LAGUNGARRIAK  
JARTZEKO ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA.**

**Lurralde Batzorde Informatiboaren 2022ko ekainaren 21eko irizpena**

**1. AURREKARIAK**

<b>Dokumentua</b>	<b>Data/Zk.</b>	<b>Oharrak</b>
Bilera irekia ostalariekin	2021/11/24	
Aurretiatzko kontsulta publikoaren iragarkia udaletxeko taulan	2022/03/24- 2022/04/19	
Aurretiatzko kontsulta publikoaren iragarkia web orrian	2022/03/24	
Bilera irekia herritarrekin	2022/03/29	
Informazio publikoko epearen amaiera	2022/04/19	
Informazio publikoko epean jasotako eskaerak	2022/04/11 2022/04/12 2022/04/14	Euskal Herria plazako eta inguruko bizilagunena Udaleko Garapen Ekonomiko, Turismo, Merkataritza, Azoka eta Enpleguaren Sustapeneko Saileko arduradunarenak Tolosako ostalari taldearena
Txosten juridikoa informazio publikoari buruz	2022/05/03	
Hizkuntza baldintzei buruzko txostena	2022/05/25	Aldekoa, gomendioekin
Idazkariaren ziurtagiria informazio publikoari buruz	2022/06/08	
Ordenantza proposamena	2022/06/10	
Berdintasunari buruzko txostena	2022/06/13	Aldekoa, gomendioekin
Lege-txostena	2022/06/14	Aldekoa, zuzenketekin

**2. AZTERKETA TEKNIKOA**

2022ko martxoaren 25ean, Udaleko hizkuntza normalizatzaileak txostena egin



zuen:

**ORDENANTZA HONEN BERRIKUSPENA: BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK, SALGAI DAUDEN PRODUKTUEN ERAKUSLEKUAK ETA BESTE ELEMENTU LAGUNGARRIAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

**Aurrekaria**

Proposamena idatzi du Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, eta Ingurumen Sailak izenburuko ordenantzaren berrikuspena dela eta. Jasotzen duenaren arabera, orain da garaia proposamen horri ekarpenak egiteko:

«Legeak ezarritako prozedura betetzeko, aurretiazko kontsulta publikoa egingo dute ordenantza onartu baino lehen.

Herritarrek, erakundeek eta elkarteek hala iritziz gero, parte hartu ahal izango dute eta ekarpenak egin, bi bide hauetako edozein erabilita:

Helbide elektronikoa honetara bidalita: [hirigintza@tolosa.eus](mailto:hirigintza@tolosa.eus)

Udalaren Erregistroan aurkeztuta, aurrez aurre zein telematikoki (Plaza Zaharra 6 A, Tolosa).

Horretarako, 15 lanegun izango dituzte, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita».

Hala, hona hemen gure ekarpena:

**Araudia**

Honako dekretu hau hartu dugu oinarri, ekarpena egiteko:

**179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.**

Honela dio legeak:



«(...)

## **2. artikulua** Aplikazio-eremu subjektiboa.

5. Era berean, irizpide horiek (alegia, dekretuak ezartzen dituen hizkuntza-irizpideak) jabari publikoaren erabilera pribatiboaren eta erabilera komun bereziaren onuradunei ere aplikatuko zaizkie, onuradun gisa herritarrekin dauzkaten harremanetan, eta emakidagintzan edo baimen-tituluan ezarritako baldintzetan; hain zuzen ere, araudi sektorialean eta dekretu honetako 35. artikuluan kontsumitzaile eta erabiltzaileei aitortzen zaizkien hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

## **10. artikulua** Ad extra eskumena.

2. Udalek neurriak planifikatuko dituzte euskararen ezagutza sustatzeko eta euskararen erabilera soziala hedatzeko udal-eremuan, arlo hauetan bereziki: bide publikoko publizitatean, lan-jardueretan, lanbide-jardueretan, merkataritzan, kulturean, elkarte-jardueretan, kirolean, ikus-entzunezkoetan, zinema eta ikuskizunetan, jolas-jardueretan, entretenimendu-jardueretan, udal-eremuko prentsan eta prestakuntzan.

## **35. artikulua** Jabari publikoaren erabilera komun berezia eta pribatiboa.

Euskadiko toki-entitateek eta Euskadiko tokiko sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateek jabari publikoko hizkuntza-paisaian euskararen erabilera normalizatu dadin sustatuko dute. Horretarako, jabari publikoaren erabilera berezia eta pribatiboa baimentzeko tituluetan klausula egokiak txertatuko dira kontsumitzaileei eta erabiltzaileei idatziz ematen zaizkien informazioa eta segurtasun-abisuak euskaraz ere idatz edo komunika daitezzen».

## **Ekarpena**

Horiek horrela, artikulu hau txertatzea proposatzen dugu:

xx. artikulua. Hizkuntza-baldintzak.



Okupatutako eremuan jendearen eskueran eta bistan jartzen diren elementu guztiak (menuak, prezioen zerrendak, kartelak, eskaintzen oharrak, arbeletako oharrak...) euskaraz idatzi beharko dira (beste hizkuntza batzuetan ere idatzi daitezke). Elementu horiek hizkuntza bat baino gehiagotan jartzen badira, euskarari lehentasuna eman beharko zaio (hurrenkeran, tamainan...).

Dagokion lekuan tokia egingo zaiolakoan».

2022ko ekainaren 13an, Udaleko berdintasun teknikariak txostena egin zuen:

### **«BERDINTASUNARI BURUZKO TXOSTENA GAI HONI LOTURIK**

GAIA: Proposamena, bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakustokiak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen ordenantza berriarena

2022ko ekainaren 10ean Hirigintza, Obrak eta Zerbitzu, eta Ingurumeneko Sailak, korreo elektronikoren bidez, Proposamena, bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakustokiak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen ordenantza berriaren txosten teknikoaren egiteko adierazten du.

Ordenantza honen helburua da bide publikoan eta jabari pribatuko lurzoruetan, ordenantza honetan adierazten diren baldintzetan, ostalaritza eta merkataritza saltokien jarduera osatzen duten aire zabaleko elementu hauek jartzeko araubide tekniko eta juridikoa ezartzea da.

Ordenantzako honetako aurreikuspenen helburua:

1. Terrazak eta instalazio osagarriak, hala nola eguzkitakoak eta toldoak.
2. Salgai dauden produktuen erakustokiak.
3. Beste elementu osagarri batzuk.

Halaber, ordenantza hau aplikagarria izango da erabilera publikoko espazio guztietan (kaleak, plazak, barruko patioak, esparru libreak, eremu berdeak...), jabari publikoak edo pribatukoak izan, baita publikoari irekita dauden espazio pribatuetan ere.

Ondoren, ordenantza honen hurrengo tituluetan, bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakustokiak eta beste elementu osagarri batzuk instalatzeko baldintzak



azaltzen dira, ordenantzarekin lotutako definizio batzuk ematen dira, parametro eta tipologia askotarikoak, eta aldez aurretik lizentzia lortzeko beharra azaltzen da.

Jarraian, ordenantzaren II. tituluari, terrazetako eta salmenta-erakustokietako instalazioen eta bestelako elementu osagarrien baldintzak ezartzen dira, eta, azkenik, IV. tituluari, lizentzien tramitazioa eta kudeaketa.

Hori horrela, ordenantza honetan jasotako edukia aztertu ondoren, zenbait ohar atera daitezke:

Ordenantza honetako tituluak aztertu ondoren, uste da ez dela derrigorrezkoa generoaren araberako eraginaren alde aurreko ebaluazioa egitea. Hain zuzen ere, ordenantza honen helburua da bide publikoan terrazak, salmenta-produktuen erakustokiak eta bestelako elementu osagarriak jartzea, arlo horretan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera, indarrean dagoen hirigintza-planeamenduan sartuta. Eta aurkezten den berrikuspenak ez die modu erabakigarrian eragiten emakumeen eta gizonen egoerari eta/edo herritarren eskubide eta interes legitimoiei.

Eta bukatzeko, ordenantzaren testua berrikustea eta zuzentzea gomendatzen da, hizkuntza ez-sexista erabiltzeari dagokionez eta testutik barrak kenduz (/), maskulinoa eta femeninoa aldi berean sartzeko helburuarekin.

Hortaz, txosten honetan egindako zuzenketak eta gomendioak ordenantza hau egiteko arduradunen teknikariarekin kontrastatu eta bertan sartu ondoren ulertuko da ordenantza honek oso modu egokian betetzen duela Tolosako Udalak erabakita dituen berdintasun irizpideak.

Halaxe jakinarazten dut dagozkion ondorioetarako».

### **3. AZTERKETA JURIDIKOA**

2022ko ekainaren 14an, Idazkaritzako AOTak txostena egin zuen:

ESKUE38ddf9a-b7d3-494c-bc8c-9db083d115e13



## «LEGE-TXOSTENA

**GAIA: Bide publikoan terrazak, salgai duden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen ordenantza**

### AURREKARIAK

Hirigintza Departamentutik aipatutako Ordenantza helarazi dute.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Erkidea arautzen duenak, bere 133. artikuluan xedaturiko kontsulta-jardunbidea gauzatu da.

Tolosako udaleko Hirigintzako Sailak aipatutako Ordenantzaren testua helarazi du, dagokion lege-txostena egiteko.

### AZTERKETA JURIDIKOA

#### 1.- Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena

Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatu Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen. Zehazki, ondoko aldaketa hauek eragin zituen lege berriak:

udal eskumenen sailkapena egin zituen: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak bereizi ditu lege berriak.

udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu.

udalen eskumenen egikaritza ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen menpe jarri ditu.

Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gai zerrenda bat osatu zuen, non udalek berriazko eskumenak egikarituko baitzituzten. Gai



horien artean, 21.1. artikularen q) atalak udalek, bestek beste, ondorengo kompetentziak jasotzen ditu: "lizentziak ematea".

Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten eskumen propioak zehazten ditu; 8. atalean:" "Ingurumenaren babesa eta garapen jasagarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta." Lege horren 33 atalean ere jasota daude: "Establezimendu publikoak eta jolas jarduerak antolatzea eta kudeatzea..."

Bestalde, Ordenantza ondorengo arautegian dago oinarrituta:

- Udal Entidadeen ondasun erregelamendua arautzen duen 77.artikulua.
- Udal Entidadeen Zerbitzuen Erregelamenduaren 1-17.artikuluak.
- Jolas Jardueri buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 29.artikulua.

Beraz, Teknikari honen iritziz, Tolosako udalak badu ahalmena proposatzen den Ordenantza arautzailea onartu eta aplikatzeko, aipatu diren xedapenetan oinarritzen delako.

## **2 - Ordenantzaren testua ikusirik, ondoko aldaketa hauek egitea proposatzen dira:**

- "Alkatetzari" buruzko erreferentzien ordean "organo eskuduna" jarriko da. Ildo horretan egon litezkeen etorkizuneko aurreikuspenei malgutasun handiagoa emateko **(8.artikulua 1 eta 2 parrafoetan ,20.artikulan, 24.3 puntuan, e.a.)**

-19.1 artikuluan,kontuan izanik onuradunak pertsona fisiko eta juridikoak izan daitezkeela, eskabideak horrela aurkeztuko dira:

"Erakunde edo pertsona juridikoen kasuan, Tolosako Udalaren erregistro elektronikoan aurkeztu beharko dira nahitaez, baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1 artikuluan adierazitako gainerako





erregistro elektronikoetan ere, eta aurrez aurreko erregistroa pertsona fisikoentzat bakarrik onartuko da.

Hauetz gainera, pertsona fisikoak beste modu hauetan ere aurkeztu ahal izango dira:

Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen den moduan.

Espainiaren ordezkaritza diplomatikoetan edo bulego kontsularretan, bulego kontsularretan edo Espainiak atzerrian dituen ordezkaritza diplomatikoetan.

Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.

Indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein tokitan.”

### **3.- Ordenantzaren izapidetzea**

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 49. artikuluan xedatzen du Ordenantzak onartzeko jardunbidea, ondokoaren arabera:

1. Hasierako onespena, Plenoari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.
2. Informazio publikoa eta interesatuen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitezten.
3. Aurkezturiko alegazioak ebatzi eta Ordenantzaren behin betiko testua onartzea, udalbatza plenoari dagokiona.
4. Informazio publikoko epea iragan eta inolako erreklamaziorik ez balitz aurkeztuko, Ordenantza behin betikotzat onartua emango da.

### **4.- Organo eskuduna**

Goian aipatu den moduan, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Ordenantzen hasierako onespena udalbatza plenoaren eskumena da.



Beraz, Irizpenak ondorengo forma izango luke:

LEHENA.- Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen udal ordenantza hasieraz onartzea, txosten honetan aipatutako aldaketekin. Baita berdintasun eta euskarako teknikariek azaldutako aldaketekin ere.

BIGARRENA.- Ordenantza eta dagokion espedientearen informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

LAUGARRENA.-Xedatzea epe horretan ez badago alegaziorik behin betiko onartuta dagoela ulertuko dela».

#### **4. FISKALIZAZIO-TXOSTENA**

Udal kontuhartzaileak ez du txostena egin, baina honako ohar hau helarazi du:  
*“Mahai mota desberinak ezartzen dira eta lizentzien iraupena eta indarraldia aldatzen da. Beraz, ordenantza hau indarrean jartzeko, ezinbestekoa da ordenantza fiskala aldatzea.”*

Aurrekoa ikusita, eta eskatu zein gomendatutako zuzenketak eginda, espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetzeari jarraitu diola uste da, eta Udaltzako hasieraz onartu behar du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49. artikuluen arabera.

**Tolosako Udaleko Lurraldea Batzordeak, 2022ko ekainaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan da:**



**Aldeko botoak:** Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa eta Patxi Amantegi Zubiria.

**Abstentzioak:** Andu Martinez de Rituerto, Ander Figuerido eta Aitzol Garzia.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

### *IRIZPENA*

**LEHENA.-** HASIERAZ ONARTZEA bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen udal ordenantza.

**BIGARRENA.-** Ordenantza eta dagokion espedientea jendaurrean jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

**LAUGARRENA.-** Xedatzea, epe horretan ez badago alegaziorik, behin betiko onartuta dagoela ulertuko dela.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

Beraz, Udalbatzak aho batez **hasieraz onartu du** bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzeko arautzen duen udal ordenantza.



**12.HASIERAZ ONARTZEA URBANIZAZIO, ERAIKUNTZA, ETA INGURUMENA,  
PAISAIA ETA NATURA BABESTEKO UDAL ORDENANTZAREN IV. TITULUAREN  
ALDAKETA (OSTALARITZA ETA JOLAS JARDUERAK BAIMENTZEA ETA  
EZARTZEA ARAUTZEKO BALDINTZAK).**

**1. AURREKARIAK**

<b>Dokumentua</b>	<b>Data/Zk.</b>	<b>Oharrak</b>
Bilera irekia ostalariekin	2021/11/24	
Aurretiako kontsulta publikoaren iragarkia udaletxeko taulan	2022/03/22- 2022/04/12	
Aurretiako kontsulta publikoaren iragarkia web orrian	2022/03/22	
Bilera irekia herritarrekin	2022/03/29	
Informazio publikorako epearen amaiera	2022/04/12	
Informazio publikorako epean jasotako eskaera	2022/04/11	Euskal Herria plazako eta inguruko bizilagunena
Txosten juridikoa informazio publikoari buruz	2022/05/03	
Ordenantza proposamena	2022/06/01	
Berdintasunari buruzko txostena	2022/06/07	Aldekoa, gomendioekin
Idazkariaren ziurtagiria informazio publikoari buruz	2022/06/08	
Hizkuntza baldintzei buruzko txostena	2022/06/08	Aldekoa, baldintzekin
Lege-txostena	2022/06/13	Aldekoa

**2. AZTERKETA TEKNIKOA**

2022ko ekainaren 7an, Udaleko berdintasun teknikariak txostena egin zuen:



## **«BERDINTASUNARI BURUZKO TXOSTENA GAI HONI LOTURIK**

**GAIA:** Urbanizazio, Eraikuntza, eta Ingurumena, Pasaia eta Natura Babesteko Udal ordenantzen laugarrena titulua: Ostalaritza eta jolas jarduerak baimentzea eta ezartzea arautzeko baldintzak

2022ko ekainaren 1ean Hirigintza, Obrak eta Zerbitzu, eta Ingurumeneko Sailak, korreo elektronikoren bidez, Urbanizazio, Eraikuntza, eta Ingurumena, Pasaia eta Natura Babesteko Udal ordenantzen laugarrena titulua: Ostalaritza eta jolas jarduerak baldintzen txosten teknikoa egiteko adierazten du.

Titulu honen helburua da ostalaritzako, jolasen arloko eta jokoaren arloko jarduerak eta saltokiak instalatzeko, irekitzeko eta jarduteko baldintzak eguneratzea, zehaztea eta arautzea, arloan diren legezko xedapenetan ezarritakoari jarraituz, indarrean den hirigintza-plangintza barne.

Halaber, titulu hau aplikatzeko lurralde-eremua, indarrean dagoen hirigintza-plangintzan hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarri sektorizatu gisa sailkatutako hirigintza-eremu eta -azpieroak guztiek osatzen dute.

Eta titulu honen aplikazio-eremu materiala ostalaritzako jardueren eta establezimenduen multzoak osatzen du, jolas- eta joko-izaerakoak, bai behin betikoak bai behin-behinekoak.

Bestalde, titulu honen eraginpeko ostalaritza-eta jolas jarduerak zortzi taldetan sartuta daude. Ostalaritzako jardueren lehen hiru taldeak establezimendu iraunkorrak eta irabazi-asmorik gabekoak dira. Horietan, 1. motako taldea (dastalekuak, ogitarteko-saltokiak, izozki dendak...) 2. motako taldetik tabernak, edaritegiak, kafetegiak, taberna-jatetxeak, jatetxeak..) alkoholik gabeko edarien kontsumoarekin bereizten da funtsean, eta hori ez da gertatzen 2. motakoan. 2. motako taldetik 3. motako taldera (pubak eta taberna bereziak, kafe antzokiak ikuskizun-jatetxeak...) dagoen funtsezko aldea da azken horrek gaueko ordutegi zabalagoa duela jarduerak garatzeko.



lido honetatik jarraituz, 4. Taldea: Musika eta asialdirako eta dantzarako ostalaritza-jarduerak dantzalekuak, diskotekak ...), 2. edo 3. taldekoekin duen aldeak, gaueko ordutegi zabalagoa du, besteak beste, jarduera garatzeko. 5. Taldean aldiz, irabazi asmorik gabeko ostalaritza jarduerak garatzen dute elkarte gastronomikoak eta auzo-elkarteak eta egoitzak eta lokalak, politika, kultura eta kirol arloko elkarteak...). 6. Taldekoak, ostalaritza-jarduera ebentualak (azoka-esparruak, festa herrikoak edo antzekoak, txosnak...). 7. taldea jolas jarduerak (jolasaretoak, ziberraretoak eta ziberkafeak...), eta azkenik 8. Taldea, zorizko joko jarduerak garatzen ditu (aisialdi eta dibertsio-zentroak, bolatokiak, haurrentzako jolas-aretoak...).

Hori horrela, 4. Titulu honetan jasotako edukia aztertu ondoren, zenbait ohar atera daitezke:

Ordenantza honetako 4. titulua aztertuta, uste da ez dela derrigorrezkoa generoaren araberrako eraginaren alde aurreko ebaluazioa egitea. Izan ere, ordenantzaren 4. tituluaren edukia eguneratu beharra dago, arlo horretan indarrean dauden legez-xedapenetan ezarritakoaren arabera, indarrean dagoen hirigintza-plangintza barne. Eta aurkezten den eguneratzeak ez die modu erabakigarrian eragiten emakumeen eta gizonen egoerari eta/edo herritarren eskubide eta interes legitimoei.

Hala ere, gomendatzen da Tolosako ostalaritzak bere lokalean gertatzen diren eraso sexisten aurrean jarraitu beharreko gomendioen protokoloa eranstea, bereziki aipatutako jaietan (sanjoanak eta inauteriak). Txosten teknikoarekin batera eranskina erantsi da. (Eraso sexista baten aurrean Tolosako tabernariei emandako gomendioak I. Eranskina)

Era berean, gomendatzea eremu honetan diseinatzen diren publizitate-edukiek ez ditzatela emakumeak gaizki tratatu, degradatu edo gutxiagotzat aurkeztu, eta lortu nahi dugun gizarte errealitatearekin bat datorren emakumeen eta gizonen irudia proiektatu dezatela.

Halaxe jakinarazten dut dagozkion ondorioetarako».

*(Eranskina)*



**ERASO SEXISTA BATEN AURREAN,  
TOLOSAKO TABERNARIEI EMANDAKO  
GOMENDIOAK**

**ANTE UNA AGRESIÓN SEXISTA,  
RECOMENDACIONES A LA HOSTELERÍA  
DE TOLOSA**

Berdintasunaren aldeko urratsak egiten jarraitzeko eta eraso sexisten aurrean erantzun irmoa emateko hermitar zein eragile guztien inplikazio eta laguntza ezinbestekoa da.

Con el objetivo de seguir dando pasos a favor de la igualdad y dar una respuesta firme ante las agresiones sexistas, es imprescindible la implicación y el apoyo de toda la ciudadanía y de todos los colectivos sociales.

Berdintasunaren aldeko protokolo ezagutu eta aumera eramatea bereziki garrantzitsua da jende asko biltzen den jai-eremuetan, gune horiek dituzten ezaugarria propioengatik. Horregatik, oso positibotzat jotzen dugu gai honetan neurriak hartzen laguntzea.

Conocer y llevar a cabo un protocolo de igualdad es especialmente importante en zonas de fiesta con gran afluencia de público, por sus características propias. Por eso, consideramos muy positivo que nos ayudéis a tomar medidas en este tema.

Eraso bat gertatu ezker, tabernetako barran lanean dauden pertsonen neuri batzuk aktibatzea gomendatzen da.

Por tanto, se recomienda que las personas que estén trabajando en la barra de los bares activen medidas en caso de agresión sexista.

Neurriak, laburbilduta, honakoak dira:

En resumen, son las siguientes:

Musika etengo da eta tabemako argiak piztuko dira.

Cese de la música y encendido de las luces del bar.

Erasoa ematen ari bada, erasoa geldituko da.

Si la agresión se está efectuando, se actuará y se parará al instante.

Erasotzailea identifikatu ostean gomendatzen zaio kaleratzea eta egoeraren arabera, Udaltzaingoari deitu **943 67.58.58** telefonora, egin behar duten esku-hartzea egiteko.

Una vez identificado el agresor se le recomendará salir del bar, y en función de las circunstancias, se llamará a la Policía Municipal al teléfono **943 67.58.58** para que realicen la intervención necesaria.

Erasotuari asistentzia emango zaio eta tabemaren baruko espamura sartzeko eskaintza egingo zaio.

Se atenderá a la persona agredida y se le ofrecerá entrar al recinto interior del bar.

Erasotuairen egoeraren arabera laguntza eskaini.

Se le ofrecerá ayuda y/o acompañamiento, en función de la situación de la persona agredida

2022ko ekainaren 8an, Udaleko hizkuntza normalizatzaileak txostena egin zuen:

**«Gaia: hizkuntza baldintzak.**

**Non aplikatzekoak: Laugarren titulua: ostalaritza eta jolas jarduerak baimentzea eta ezartzea arautzeko baldintzak**

**Araudia**

Honako dekretu hau hartu dugu oinarri, baldintza ezartzeko:

179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.





Honela dio dekretu horrek:

“(…)

2. artikulua Aplikazio-eremu subjektiboa.

5. Era berean, irizpide horiek (alegia, dekretuak ezartzen dituen hizkuntza-irizpideak) jabari publikoaren erabilera pribatiboaren eta erabilera komun bereziaren onuradunei ere aplikatuko zaizkie, onuradun gisa herritarrekin dauzkaten harremanetan, eta emakida egintzan edo baimen-tituluan ezarritako baldintzetan; hain zuzen ere, araudi sektorialean eta dekretu honetako 35. artikuluan kontsumitzaile eta erabiltzaileei aitortzen zaizkien hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

10. artikulua *Ad extra* eskumena.

2. Udalek neurriak planifikatuko dituzte euskararen ezagutza sustatzeko eta euskararen erabilera soziala hedatzeko udal-eremuan, arlo hauetan bereziki: bide publikoko publizitatean, lan-jardueretan, lanbide-jardueretan, merkataritzan, kulturean, elkarte jardueretan, kirolean, ikus-entzunezkoetan, zinema eta ikuskizunetan, jolas-jardueretan, entretenimendu-jardueretan, udal-eremuko prentsan eta prestakuntzan.

35. artikulua Jabari publikoaren erabilera komun berezia eta pribatiboa.

1. Euskadiko toki-entitateek eta Euskadiko tokiko sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateek jabari publikoko hizkuntza-paisaian euskararen erabilera normalizatu dadin sustatuko dute. Horretarako, jabari publikoaren erabilera berezia eta pribatiboa baimentzeko tituluetan klausula egokiak txertatuko dira kontsumitzaileei eta erabiltzaileei idatziz ematen zaizkien informazioa eta segurtasun-abisuak euskaraz ere idatz edo komunika daitezzen».

## **Proposamena**

Horiek horrela, honako hauek txertatzea proposatzen dugu:



#### **102.1 A puntuan (legezko xedapenak) hau gehitu:**

179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.

**4. kapituluaren (baldintza teknikoak) hau sartu** (atal honetan geldituko da garbier, «tekniko» hitza gorabehera):

xx artikulua. Hizkuntza-baldintzak.

Okupatutako eremuan jendearen eskueran eta bistan jartzen diren elementu guztiak (menuak, prezioen zerrendak, kartelak, eskaintzen oharak, arbeletako oharak...) euskaraz idatzi beharko dira (beste hizkuntza batzuetan ere idatzi daitezke). Elementu horiek hizkuntza bat baino gehiagotan jartzen badira, euskarari lehentasuna eman beharko zaio (hurrenkeran, tamainan...).

Horren haritik, gogora ekarri behar da (179/2019 Dekretua) udalek neurriak planifikatu behar dituztela euskararen ezagutza sustatzeko eta euskararen erabilera soziala hedatzeko udal eremuan. Hori horrela, eta kontsumitzaileei eta erabiltzaileei aitortzen zaizkien hizkuntza-eskubideak bermatzeko, Udalaren gomendioa da jabari publiko ez diren esparruetan ere haientzako informazioa (menua, oharak...) euskaraz behintzat agertzea.

Horretarako, Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak ematen duen zerbitzua baliatu ahal izango dute: itzulpenak, hizkuntza-aholkularitza...»

### **3. AZTERKETA JURIDIKOA**

2022ko ekainaren 13an, Idazkaritzako AOTak txostena egin zuen:



## «LEGE-TXOSTENA

**GAIA: Urbanizazio, eraikuntza eta ingurumena, paisaia ta natura babesteko udal ordenantzaren IV. Titulua aldatzea.**

### AURREKARIAK

Hirigintza Departamentutik aipatutako Ordenantzaren aldaketa helarazi dute.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Erkidea arautzen duenak, bere 133. artikuluan xedaturiko kontsulta-jardunbidea gauzatu da.

Tolosako udaleko Hirigintzako Sailak Ordenantzaren testua helarazi du, dagokion legetxostena egiteko.

### AZTERKETA JURIDIKOA

#### 1.- Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena

Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatu Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen. Zehazki, ondoko aldaketa hauek eragin zituen lege berriak:

udal eskumenen sailkapena egin zituen: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak bereizi ditu lege berriak.

udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu.

udalen eskumenen egikaritze ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen menpe jarri ditu.

Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gainera bat osatu zuen, non udalek berriazko eskumenak egikaritze baitzituzten. Gai horien artean, 21.1. artikulua q) atalak udalek, besteak beste, ondorengo kompetentziak jasotzen ditu: "lizentziak ematea".



Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten eskumen propioak zehazten ditu; 8. atalean:” “Ingurumenaren babesa eta garapen jasagarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta.” Lege horren 33 atalean ere jasota daude: “Establezimendu publikoak eta jolas jarduerak antolatzea eta kudeatzea....».

Beraz, teknikari honen iritziz, Tolosako Udalak badu ahalmena proposatzen den Ordenantza arautzailea onartu eta aplikatzeko, aipatu diren xedapenetan oinarritzen delako.

## **2.- Ordenantzaren izapidetzea**

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 49. artikuluan xedatzen du Ordenantzak onartzeko jardunbidea, honako honen arabera:

Hasierako onespena, Plenoari dagokiona, aipatutako Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.

Informazio publikoa eta interesdunentzako entzunaldi epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitezten.

Aurkezturiko alegazioak ebatzi eta Ordenantzaren behin betiko testua onartzea, udalbatza plenoari dagokiona.

Informazio publikoko epea iragan eta inolako erreklamaziorik ez balitz aurkeztuko, Ordenantza behin betikotzat onartua emango da.

## **3.- Organo eskuduna**

Goian aipatu den moduan, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Ordenantzen hasierako onespena udalbatza plenoaren eskumena da.



Beraz, Irizpenak honako forma hau izango luke:

**LEHENA.-** Urbanizazio, Eraikuntza eta Ingurumena, Paisaia eta Natura Babesteko Udal Ordenantzen IV. Tituluaren aldaketa hasieraz onartzea, berdintasuneko eta euskarako teknikariek azaldutako aldaketak sartu ondoren.

**BIGARRENA.-** Ordenantza horren aldaketa eta dagokion espedientea jendaurrean publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

**LAUGARRENA.-** Xedatzea, epe horretan ez badago alegaziorik, behin betiko onartuta dagoela ulertuko dela”.

Aurrekoa ikusita, eta eskatu zein gomendatutako zuzenketak eginda, espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetzeari jarraitu diola uste da, eta Udalbatzak hasieraz onartu behar du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49. artikuluen arabera.

**Tolosako Udaleko Lurraldea Batzordeak, 2022ko ekainaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan da:**

**Aldeko botoak:** Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa eta Patxi Amantegi Zubiria.

**Abstentzioak:** Andu Martinez de Rituerto, Ander Figuerido eta Aitzol Garzia.



Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

### *IRIZPENA*

**LEHENA.-** HASIERAZ ONARTZEA Urbanizazio, Eraikuntza eta Ingurumena, Paisaia eta Natura Babesteko Udal Ordenantzen IV. Tituluaren aldaketa.

**BIGARRENA.-** Ordenantza horren aldaketa eta dagokion espedientearen informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

**LAUGARRENA.-** Xedatzea epe horretan ez badago alegaziorik, behin betiko onartuta dagoela ulertuko dela.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

Beraz, Udalbatzak aho batez **hasieraz onartu du** urbanizazio, eraikuntza, eta ingurumena, paisaia eta natura babesteko udal ordenantzaren IV. Tituluaren aldaketa (Ostalaritza eta jolas jarduerak baimentzea eta ezartzea arautzeko baldintzak).

### **13.7/2022 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEKOA.**

2022/7 kreditu gehigarrien modalitateko kreditu aldaketaren berri eman da. 2022/1781 Alkatetza dekretuak honela dio:



## ALKATEAREN DEKRETUA

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

*Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2022-KALD-000007-00.*

*Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.*

*Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau*

### EBATZI DUT

**Lehenengoa.-** *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

<b>Kapituluak</b>	<b>Izena</b>	<b>Gehikuntzak</b>
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	18.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	117.000,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>135.000,00</b>

### FINANTZAKETA

<b>Kapituluak</b>	<b>Izena</b>	<b>Zenbatekoa</b>
8	FINANTZA AKTIBOAK	135.000,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>135.000,00</b>

**Bigarrena.-** *Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.*

Tolosa, 2022ko ekainaren 7a





*Alkatea*

*Idazkaria*

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

#### **14.BEHIN BETIKO ONARTU IZANAREN BERRI EMATEA: ORIABURUKO ARETO NAGUSIA ERABILTZEKO ERREGELAMENDUA.**

Udalbatzarrak, 2022ko martxoaren hogeita hamaikan, Ohiko Osoko Bilkuran, hasierako onarpena eman zion Oriaburuko Areto Nagusia erabiltzeko erregelamenduari.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 49.b artikulua xedatzen duena betez, onarpen hori jendaurrean ikusgai jarri da hogeita hamar lanegunez, iragarpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hasierako onespeneko iragarkia honako hedabide hauetan argitaratu da:

- Web orrian
- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2022ko apirilaren 21ean, 74. zenbakian.
- Iragarki taulan, 2022ko apirilaren 11tik maiatzaren 31ra arte.

Informazio publikoko epean ez da inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztu, beraz, behin betikoz onartutzat ematen da.

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

#### **15.ERREFUXIATUEN EGOERARI BURUZKO MOZIOA.**

Gaia erretiratu egin da, proposatzen da "Melillaren egoeraren ingurukoa" urgentzia duelako.

#### **16.MOZIOA: EKAINAREN 28A. GAY, LESBIANA, TRANSEXUAL, BISEXUAL, INTERSEXUAL ETA QUEER-EN ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA.**

Gaia ez da tratatu adierazpen instituzionala egin baita.



**Gai zerrendatik aparte eta gaiaren premiatasuna dela eta, Udalbatzak, aho batez onartu ondoren, honako gai hau aztertu da:**

• **MELILLAREN INGURUKO MOZIOA.**

Moziok honela dio:

*“Joan den ekainaren 25ean, Espainiako Estatuko hegoaldeko mugaren historiako hondamendi humanitario larrienetako bat bizi izan zen. Gutxienez 37 pertsona hil dira, GKEen arabera, eta dozenaka zauritu Melillara iristen saiatzean, indarkeria-irudi basatiekin, beroan itzulketekin eta migrazio-agintarien aldetik Giza Eskubideen urraketa larriekin.*

*Testuinguru horretan, Espainiako presidentek adierazpen onartezinak egin zituen egindako jarduerak ulertu eta babestuz, eta Espainiako eta Marokoko segurtasun-kidegoek egoera ondo konpondu zutela adierazi zuen.*

*Horiek horrela, gaur agertutako taldeek honako hau aurkezten dugu*

**ADIERAZPENA:**

- 1. Gure atsekabea eta salaketa irmoa adierazten dugu joan den ekainaren 25ean Melillako mugan gertatutakoengatik, eta elkartasun osoa adierazten diegu poliziaren jardun basatiaren ondorioz hildako edo zauritutako Saharaz hegoaldeko pertsonen familiei.*
- 2. Gertakari larri hauetan Estatuko segurtasun indarren parte-hartzea salatu.*
- 3. Ikerketa berehalakoa eta independentea eskatzen dugu, gertakariak argitzeko, erantzukizunak garbitu eta biktimen erreparaziorako neurriak ezartzeko.*
- 4. Hildakoen gorpuak berreskuratzea, identifikatzea eta jatorrizko herrialdeetara aberriratzea eskatzen dugu, familien nahiak errespetatuz.*
- 5. Adierazi nahi dugu, halaber, erabat gaitzesten ditugula migrazioaren eta asiloaren arloan Europak eta Espainiak gaur egun dituzten politikak, mugak militarizatzeari eta kanpora ateratzeari buruzkoak.*
- 6. Eskatzen dugu legezko bide seguruak ezartzea, migratzaile guztien duintasuna eta giza eskubideekiko errespetua bermatzeko.*
- 7. Gure ustez, Europar Batasunak migrazio-politika koherente eta bateratua ezarri behar du, eta asilo- eta babes-politika giza eskubideen errespetuan oinarritua.*
- 8. Mugetara iristen diren migratzaileen erantzukizunak eta kudeaketak EBko kideen artean komuna, arduratsua eta solidarioa izan behar duela uste dugu.*



9. *Azkenik, agertutako taldeok berretsi egiten dugu giza eskubideetan oinarritutako migrazio-politikak bultzatzea, eskuin muturreko ideologiek bultzatutako diskurtso xenofoboaren eta praktika autoritarioen aurrean.*”

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Melilla inguruko mozioa.

## **17. GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Besterik gabe, 21:30ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatu dut, alkateak ontzat emanda.

ALKATEA  
O. e.

IDAZKARI AKZIDENTALA



